

**ASILO-PROZESUAREN ERRONKAK
EUROPAKO HARRERA-HERRIALDE
NAGUSIETAN:
JATORRIA ETA ERANTZUNAK**

**LEHENENGO PERTSONAN ETA
GENERO IKUSPEGI BATETIK**



EGILEAK:

Arantzazu Zubeldia Plazaola
Miren Zubeldia Plazaola

EDIZIOA:

EREI Elkartasunerako Elkartea · www.ereielkartea.org

ILUSTRAZIOAK:

Eli Fazlollah

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Kalaka Koop. Elk. Txikia

ARGITALPENA:

Oñati, 2023ko uztaila

FINANTZATUTAKO TXOSTENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola Departamentua



EzKomertziala – PartekatuBerdin (by-nc-sa):

Ez du baimentzen jatorrizko obraren edo obra eratorri posibleen erabilera komertzialik. Obra deribatuaren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berdinarekin egin behar da.

Ikerketa lan hau “Errealitate migratzaileak Europako harrera-herrialde nagusietan, lehenengo pertsonan eta genero ikuspuntu eta ikuspuntu global batetik” proiektuaren baitan aurrera eramandako lana da. Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EREI Elkartasunerako Elkartek kofinantzatuta dago.



WWW.EREIELKARTEA.ORG

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

01

Sarrera

4. or.

02

Jatorrizko herrialdeetako errealitatea

7. or.

Afganistan | 8. or.

Iran | 16. or.

03

Harrera-herrialdeetan erronkak

22. or.

Alemania | 23. or.

Frantzia | 35. or.

04

Erronkei erantzunak: aktibismoak eta emantzipazio-proiektuak

43. or.

05

Bibliografia

50. or.

01


SARRERA

S
A
R
R
E
R
A

Txosten hau EREI Elkartasunerako Elkartek Frantzia eta Alemanian aurkitzen diren pertsona migratzaile, errefuxiatu eta asilo-eskatzaileei egindako elkarrizketen bidez aurrera eramandako ikerketa-lan baten emaitza da. Bi herrialde hauek Europako harrera-herrialde nagusiak dira, asilo-eskaera gehien jasotzen dituzten herrialdeak, alegia. Europako Batzordearen datuen arabera [Europako Batzordea, 2022], 2021ean Alemania izan zen asilo-eskaera gehien jaso zituen herrialdea (148.200), eta haren ondoren, Frantzia, 103.800 eskaerarekin. Hori dela eta, ikerketa-lan honetan bi herrialde horietan asilo-prozesuak dituen erronkak aztertu eta gizarteratu nahi izan dira. Era berean, EREI elkartearen ibilbidea kontutan izanda, eta aurrez Grezian errealitate migratzaileen inguruan lehenengo pertsonan eta genero ikuspegi batetik [EREI elkarte, 2022] gauzatutako ikerketa lanean jaso bezala, Grezian ezagututako eta elkarrizketatutako mugimenduan dauden pertsona gehienak, beraien asilo prozesua Alemanian edo Frantzian jarraitzeko asmoa zutela adierazi zuten. Beraz, alde batetik, ikerketa-lan honek jarraipena eman nahi dio aurretiko ikerketari: Greziatik igaro ondoren Europako beste herrialde batzuetan dauden erronkak ikusarazi nahi ditu. Eta bestetik, jasotako asilo-eskatzaile kopuruari dagokionez, Europako harrera-herrialde nagusietan oinarritzen da, Europako egoera migratzailearen irudi esanguratsua emateko helburuarekin.

Ikerketa prozesu hau aurrera eramateko Afganistan, Iran, Kurdistan, Mali eta Kenia herrialdeetatik datozen 18 pertsona elkarrizketatu ditugu: 10 emakume eta 8 gizona.

Frantzian Paris, Caen, Rennes eta Lyon hirietan gauzatu dira elkarrizketak, eta Alemanian berriz, elkarrizketak aurrera eramateko, Friedberg, Düsseldorf, Greven, Berlin eta Leipzig hiriak bisitatu dira.



Elkarrizketak hiru ardatz nagusitan oinarritu dira eta ardatz hauek dira txosten hau osatzen duten atal nagusiak:

Jatorrizko herrialdeetako errealitateak

Elkarrizketutako pertsona gehienagoren jatorrizko herrialdea Afganistan da. Era berean, 2021ean Europar Batasunean asiloa eskatu zuten pertsonen herritartasun nagusietako bat (bigarrena, Siriaren atzetik) Afganistan izan zen [Europako Batzordea, 2022]. Horregatik, txosten honek herrialde horren egoera politikoa eta sozio-ekonomikoa aztertuko ditu, baita globalizazio ekonomikoa errealitate horretan eta haren ingurumen-egoeran zein fluxu migratzaileetan duen eragina ere.

Harrera-herrialdeetako erronkak

Elkarrizketetan Europako harrera-herrialde nagusietan, hots, Alemania eta Frantzia, aurkitutako zailtasun eta erronkak aztertu dira. Elkarrizketatutako pertsonak asilo-eskatzaile, errefuxiatu edo migratu gisa herrialde hauetan bizi duten egoera partekatu digute; etxebizitza, hezkuntza edo lana eskuratzeari eta egiturazko arrazakeriari dagokionez, besteak beste. Hori dela eta, atal honetan Alemanian eta Frantzia migratutako pertsonak dituzten erronkak eta zailtasunak ezagutaraziko dira, lehenengo pertsonan eta genero-ikuspegi batetik. Gainera, erronka hauek pertsona migratuen herritartasunari

lotuta aztertuko dira, baita Grezian izandako egonaldiari lotuta ere. Izan ere, elkarrizketatutako pertsona gehienentzat Grezia izan zen Europara iristeko sarbidea.

Erronkei emandako erantzunak: aktibismoak eta emantzipazio-proiektuak

Harrera-herrialdeetan zailtasunak ugariak dira eta zailtasun hauei aurre egiteko sortzen diren erantzunak ere askotarikoak dira. Badira, halaber, giza eskubideak eta, bereziki, emakumeen eskubideak defendatzeko sortzen diren erantzunak ere. Elkarrizketetan, Frantzia eta Alemanian dauden erronkei aurre egiteko sortzen diren hainbat ekimen eta proiektu jaso dira. Proiektu hauek laguntza ekonomikoa bermatzeko tresna gisa zein etorkizuna eraikitzeke emantzipazio-mekanismo gisa sortu eta gauzatzen dira. Txosten honetan pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea eta desberdintasunak murriztea bilatzen duten proiektuei eman zaie lehentasuna. Gainera, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritzen diren proiektuak lehenetsi dira. Era berean, elkarrizketatutako pertsonak giza eskubideen alde eta arrazakeriarik eta xenofobiarik gabeko gizarte baten alde bokorrotatzeko aurrera eramandako ekintzak partekatu dituzte. Elkarrizketatutako emakume batzuk emakumeen eskubideen alde eta gizarte antipatriarkala eraikitzearen alde borrokatzen duten aktibistak dira. Migrazio-testuinguruetan aurrera eramandako aktibismoak, eta batez ere emakumeek gauzatutako aktibismoak ezagutaraziko dira.

ER

RE

02

**JATORRIZKO HERRIALDEETAKO
ERREALITATEA**

1 | AFGANISTAN

2 | IRAN

AL

IT

AT

EA

Hainbat hamarkadatan gerran murgilduta

“Urte asko dira Afganistanen hiltzen eta bizitzen saiatzen ari garela, behin eta berriz hiltzen eta bizitzen saiatzen Afganistanen”.
(Gizona, 25)

Afganistango historia gerra eta okupazioz josita egon da azken urteetan. Gertakari hauek herrialdearen errealitate politiko eta sozio-ekonomikoan ez ezik, ondoriozko migrazio-fluxuetan ere eragin nabarmena izan dute. 1979an, Estatu Batuek azken urteetan herrialdean izandako eragin gero eta handiagoaren beldurra medio, Sobietar Batasuna Afganistanera sartu zen, talde komunista batek zuzendutako gobernu afganiar berriari laguntzeko asmotan [El orden mundial, 2021b]. Bestalde, komunismoa herrialdean errotzeko beldurraren ondorioz, Estatu Batuek mujahidinak finantzatu eta entrenatu zituzten. Talde politiko-militar hauek Sobietar Batasunari gerra deklaratu zioten eta hori izan zen Estatu Batuek mujahidinak laguntzeko erabakiaren arrazoia. Mujahidin hitzak “jihada egiten duen pertsona” esan nahi du. Testuinguru islamikoan islamiar fundamentalista edo erlijio-sinesmen sendoak dituzten borrokalariak aipatzeko erabiltzen da [Ara, 2021].

Bederatzi urteko gerraren ondoren, Sobietar Batasuna Afganistandik erretiratu zen eta Afganistan mujahidin gerrillen talde ezberdinen arteko gerra zibil batean murgilduta geratu zen. Gerra zibilaren testuinguru honetan, 1994. urtean, talibanak sortu ziren. Hasieran ikasle-gerlari gisa aurkeztu ziren talibanak, baina azkar lortu zuten

ospea eta herrialdeko gerra zibilean beste milizia bat gehiago izatera pasatu ziren [BBC, 2021]. 1996an Kabul okupatu, eta Afganistango Emirerri Islamiarra eratu zuten. Talibanek lege islamikoaren xaria edo interpretazio ortodoxoa inposatu zuten. Exekuzio publikoak sarri burutu zituzten eta besteak beste, zinema, antzerkia edo telebista zentsuratu ziren [The New York Times, 2021].

Talibanek 8 urtetik gorako neskei hezkuntza sarbidea eragotzi zieten eta emakumezko nerabeei bigarren hezkuntzako eskoletara joatea eta unibertsitateko sarbidea ere debekatu egin zieten. Gainera, emakumeek lan egitea ere galarazi egin zuten, osasun esparruan gutxieneko salbuespen batzuekin. Emakumeak beti familiako gizon batek lagunduta eta burka jantzita joan behar zuten. Murrizketa hauek are ondorio bortitzagoak eragin zituen beren familian gizonik ez zuten emakumeengan; hauek ezin zuten etxetik atera, ezta funtsezko tratamendu medikorik jaso ere. Gerra zibilean gizon asko hil zirela kontutan hartuta, emakume asko zeuden egoera horretan (%25 arte). Kasu askotan, haiek berak zein beraien seme-alabak elikatzeko arazo larriak izan zituzten [Leclerc eta Shreeves, 2023].

“Afganistanen erlijioa eta patriarkatuaren arteko erlazioa oso sendoa da. Patriarkatua ez da soilik gizonezkoen kontua, emakumeekin ere zerikusi handia du. Patriarkatuan murgildutako hainbat mende dira, eta erlijio islamikoa benetan erlijio patriarkatua dela uste dut”. (Emakumea, 38)

2001eko urrira arte egon zen Afganistan talibanen kontrolpean, Estatu Batuetan 2001eko irailaren 11ko erasoak izan eta hilabetera, Ameriketako Estatu Batuen (AEB) eta NATO-ren inbasioa gertatu zen arte. Buruzagi talibanak Pakistan eta Afganistango nekazal eta urrutiko eremuetan babestu ziren [El orden mundial 2021a]. Estatubatuarren inbasioaren aurka borrokatu zuten, eta herrialdearen zati bat kontrolpean izaten jarraitu zuten. 2001. urtearen amaieran, Hamid Karzai paxtun etniako afganiar politikaria buru zuen gobernu iragankor bat izendatu zen. Hamid Karzai Afganistango presidentea izan zen 2014 arte. Urte horretan eman zien amaiera ofizialki NATOk Afganistango borroka operazioei, nahiz eta gatazka ez zen 2021eko abuztura arte amaitu.

Estatu Batuen okupazioan eta Afganistango biztanleria zibilari dagokionez, 45.000 pertsona baino gehiago hil ziren gerraren ondorioz [Aljazeera, 2021a]. Gainera, Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) giza garapenaren adierazleak negatiboak izaten jarraitzen zuten: haurren heriotza-tasa, bizi-itxaropen laburra, genero-desberdintasuna, elikadura-segurtasun eza, etab. Giza eskubideen gaietan adituak diren ahotsen arabera, Estatu Batuek Afganistanen izandako okupazioaren balantzea oso negatiboa izan zen: 20 urteko okupazioan biktimen kopurua oso handia izan zen, eta talde armatuek, Afganistango armadak eta atzerriko indarrek, inolako zigorrik gabe [Eldiario.es, 2021], giza eskubideen urraketak burutu zituzten.

“Kabulgo Unibertsitateko Arte Fakultatean eman nuen izena 2003an, eta antzerkia ikasten hasi nintzen. Geroago, antzerki zuzendari frantses bat ezagutu nuen. Afganistanera etorri zen bere taldearekin, Afganistango ikasleei komedia frantsesa irakastera. Hilabete eta erdi tailerretan eman ondoren, 22 ikasle hautatu zituen berarekin antzerkia ikasteko eta Frantziara gonbidatu gintuen. Afganistanen eta Parisen hainbat obra interpretatu genituen eta munduan zehar bidaiatu genuen. Baina 2009an, terroristek nire kide bat atxilotu, hil, zatitu eta zulo batean utzi zuten. Handik bi astea aurkitu genuen, eta Afganistandik ihes egiteko unea iritsi zela ulertu genuen”.
(Emakumea, 38)

Talibanen itzulera boterera

“Aurreko presidentek, Ashraf Ghanik, herrialdea saldu zuen. Soldaduek ez zuten talibanen aurka borrokatu, eta ez zioten jendeari haien aurka borrokatzen utzi. Afganistango biztanleriaren erdiak baino gehiagok borrokatu zuen, baina sistemaren parte ziren askok, Ashraf Ghani bezala, ez zuten egin. Argi dago presidentek herrialdea saldu zuela eta 2021eko abuztuan talibanek boterea hartu zuten”. (Gizona, 25)

2015etik aurrera, presentzia militarrik behera egin zuen, eta NATO bigarren plano batera pasatu zen. Bere arreta, adiskidetze nazionala lortzeko helburuarekin, Afganistango segurtasun-indarrei entrenatu, aholkuak eman eta laguntzera bideratu zuen. Hala ere, Ashraf Ghani buru zuen Afganistango gobernuaren eta talibanen arteko bake negoziazioak ez ziren emankorrak izan. 2020ko otsailan talibanen eta AEBko gobernuaren arteko bake akordioa sinatu bazen ere, 2021eko abuztuan nazioarteko tropak Afganistanetik erretiratu ziren, eta talibanek herrialdearen boterea berreskuratu zuten [Bargués, 2021].

“Ameriketako Estatu Batuak talibanak jarri zituen boterean Afganistanen. Zer esan nahi du honek? Afganistandik nahi zutena hartu zuten, eta orain, ez dira kezkatzen? Jendea hiltzeko eta jendea beraien artean hiltzeko, talibanak jarri zituzten boterean. Bortxatu, hil, lapurtu egiten dute, jendeak bere etxeetatik ihes egin behar izatea eragiten dute...” (Gizona, 25)

“Afganistanen, talibanekin, dena beltza da. Honi buruz hitz egitea ez da nahikoa, hau baino gehiago delako. Esateko dudana baino askoz gehiago”. (Emakumea, 22)

Talibanak boterera itzuli direnetik, emakumeen eskubideen eta adierazpen askatasunaren murrizketak areagotu egin dira. Halaber, muturreko pobrezia gora egin du: Nazio Batuen Erakunde (NBE) Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoaren arabera, pobrezian bizi diren afganiarrak 2020an %47 izatetik 2022an %97 izatera igaro dira. Gainera, lehortek, bat-bateko uholdeek, lurrikarek eta klima-aldaketak larriagotutako beste hondamendi natural batzuek herrialdearen krisi humanitaria areagotu dute. Era berean, talibanek atxiloketa arbitrarioak, torturak edo judizioz kanpoko exekuzioak egin dituzte, eta honek guztiak beldur giroa sortu du [Amnesty International, 2023a].

“Afganistanen jende talde desberdin asko ditugu. Adibidez: hazarak, paxtunak... Afganistango gobernuak hazarengan jartzen du bere arreta, erlazionatzeko eta pentsatzeko modu desberdin bat dutelako, helburu desberdinak, plan desberdinak... dituztelako”. (Emakumea, 18)

Afganistanen hainbat etnia bizi dira elkarrekin, eta horietako bat hazara komunitatea da. Hazarak beren erlijio eta bizimoduagatik nabarmentzen dira, eta historian zehar jazarpen handia jasan dute. Gehienak islamaren adar xiitakoak dira. Jazarpenaren punturik gorena XIX. mendearen amaierakoa da. Orduan genozidio-kanpaina bat burutu zen, eta herritarren %60 inguru exekutatu zuten. Talibanak boterera itzultzean, 1990eko hamarkadan gertatu zen bezala, hazara komunitateak eraso eta diskriminazioak jasan behar izan ditu berriro [Atalayar, 2022].

“Hezkuntza oso garrantzitsua da. Bereziki hazara etniako neska eta emakume nerabeek ikastea nahi dute. Beren bizitzetan duten lehenengo helburua da”. (Emakumea, 18)

2021eko abuztuan talibanek boterea berreskuratu zutenetik, Jorasan Handiko Estatu Islamikoak, hau da, Estatu Islamikoak (ISIS) Afganistanen duen adarrak, bere gain hartu ditu hazara komunitatearen aurkako 13 eraso, gutxienez 700 pertsona hildako eta zauritu izan dituztenak. Talibanek ez dute eraso hauen aurkako erantzunik eman, eta arriskuan dauden komunitateak babesteko erantzunkizuna beraiena izan arren, erasoen biktima zein haien senideei ez diete beharrezko laguntza bideratu [Human Rights Watch, 2022a]. Are gehiago, talibanek hazara komunitateari zuzendutako erasoak burutu dituzte eta agerian utzi dute hazarak etniako pertsonak jazartzen, torturatzen eta judizioz kanpo exekutatzeko jarraitzen dutela [Amnesty International, 2022a]. Eraso horiek ikastetxeetan, lantokietan, espazio publikoetan edo meskitetan gertatu dira. Aipatzekoa da Kabulgo bigarren hezkuntzako ikastetxe batean 2022ko irailean izandako atentatu suizida. Gutxienez 50 hildako eta 100 zauritu baino gehiago egon ziren. Atentatua hazara komunitateko pertsonak bizi diren auzo batean gertatu zen, eta biktima gehienak neskatoak eta emakume nerabeak izan ziren [El País, 2022].

Emakumeen eta LGTBIQ+ biztanleriaren eskubi-deak

“Orain, talibanak Afganistanen agintean daudenetik, emakumeek ezin dute ikasi.

Sinestezina da hau gerta daitekeela, emakumeek ez dutela hezkuntzarako eskubiderik, ezin direla etxetik irten ere egin. Emakumeek ezin dutela ogirik laberatu eta saldu ere entzun dut. Lehen posible zen emakumeak ogia laberatu eta saltzea. Baina orain, etxean ogia egin eta jendeari saltzea debekatuta dago. Izan ere, horrek emakumeak lanean ari direla esan nahi du, eta ezin dute lanik egin”. (Emakumea, 19)

Emakumeen eskubideei dagokionez, neska eta emakumeentzat bigarren eta goi-mailako hezkuntza debekatuta dago. Gainera, bizitza publikoan emakumeen parte-hartzea oso mugatua izatera pasatu da. Talibanek janzkera-kode bat ezartzeaz gain, emakumeak jendaurrean gizon batek lagunduta azaltzera behartu dituzte. Gainera, neskato eta emakumeak parke publikoetara, gimnasioetara edo bainu publikoetara joatea ere debekatu egin dute. Era berean, talibanek emakumeek etxetik kanpo lan egiteko duten eskubidea murriztu dute eta honek emakumeek diru-sarrerak lortzeko gaitasunari eragin dio [Amnesty International, 2023a]. Emakumei osasuna edo lehen hezkuntzarekin lotuta ez dauden sektoreetan lan egitea debekatu diete, baita GKEetan lan egitea ere [Leclerc eta Shreeves, 2023].

“Koranean neskato batek 9 urte dituenean ezkondu daitekeela idatzita dago. Haur bat zara. Nire alaba 9 urterekin imajinatzen dut eta ezin dut gizon nagusi batekin ezkontzen irudikatu. Ezinezkoa da niretzat. Baina Afganistanen egia da eta praktikara eramaten da, gertatzen da”. (Emakumea, 38)

Halaber, talibanek Emakumeen Gaietarako Ministerioa eta Afganistango Giza Eskubideen Batzorde Independentea itxi zituzten. Honek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen laguntza-aukera eta baliabideak murriztea ekarri zuen. Hori dela eta, familia barruko genero-indarkeriak eta ezkontza behartuak areagotu egin dira [Amnesty International, 2023a].

Talibanak Afganistanen agintean daudenetik, emakumeak arrazoi ezberdinengatik atxilotuak izan dira, hala nola, publikoki gizon gabe agertzeagatik edo janzkera arau zorrotzak ez betetzeagatik. Emakume horiei ustelkeria morala egitea leporatu zaie, legezko zerbitzuetarako sarbidea ukatu zaie eta atxiloketan tratatu eta baldintza gizagabeak jasan dituzte [Leclerc eta Shreeves, 2023].

“Erljioa dela eta, Afganistango emakume asko patriarkak bihurtu dira, eta ez matriarkak. Emakumeek beren rola onartzen dute eta transmititu egiten dute. Barruan daramate. Adibidez, haurdun nengoela, nire senarraren amak haurra hiltzeko eskatu zidan, ez zelako mutila. Eta ez nuen onartu, nire haurra maite dudalako. Berdin zait neska edo mutila den, nire haurra da”. (Emakumea, 38)

Praktika hauen bitartez, beste behin talibanek sistematikoki eta instituzionalki emakumeak baztertu eta haien eskubideak urratu dituzte. Horrek beldurra eta jazarpena eragin ditu. Hala ere, talibanak ez dira emakumeak jazartzen dituzten bakarrak. Familielik eta komunitateek ere emakumeak kontrolatzen dituzte. Emakume eta neska askok protestatzen dute emakumeen eskubideen urraketaren aurka, baina beste askok, autozentsura erabiltzen dute eta honek genero-rol kontserbatzaileenak sendotzea ekartzen du [Leclerc eta Shreeves, 2023].

“Gizarte afganiarrean, Afganistanen, ez dago LGBTBIQ+ batzordea existitzeko eskubiderik.

Talibanek zuten eskubide bat ezabatzeko kanpaina bat hasi zuen gizon bat ezagutzen dut: LGBTBIQ+ komunitateko pertsona guztiak hiltzea (gay, lesbiana, trans...). Talibanentzat, pertsona hauek munstro edo gaixoak dira. Haientzat ez dute bizitzeko eskubiderik”.
(Emakumea, 38)

Talibanen agindupean LGBTBIQ+ biztanleriak jasaten dituen giza eskubideen urraketak larriak dira: mehatxuak, erasoak, sexu-erasoak, atxiloketak, etab. Gainera, talibanek iraganean aplikatzen zituzten praktikak berriro irauarazteko beldur dira. Adibidez, harreman homosexualak izatearen susmagarri diren pertsonentzat heriotza-zigorra ezartzea [Amnesty International, 2023a].

“Emakumeen boterea itzultzea espero dut, jadanik badaukate indarra. Talibanek libre izaten uzten badiete, beren botere ahaltsua erakuts dezakete. Talibanak emakumeen beldur direla uste dut. Ikasten uzten badiete, talibanek emakumeei hobetzen uzten badiete, orduan talibanak ez dira deus izango. Horregatik geldiarazten dituzte emakumeak. Eta emakumeen indarra da”.
(Emakumea, 22)



Eta zergatik horrenbeste gerra eta okupazio?

“Zergatik dago Afganistanen gerra horrenbeste urtetan? Bere baliabide naturalengatik. Zergatik etorri ziren hainbeste herrialdeetatik Afganistanera eta horrenbeste pertsona hil? Afganistango baliagaien beharra dute. Niretzat horrela da, eta ez dira Afganistango jendeaz arduratzen. Bere baliagai naturalak soilik behar dituzte”.
(Emakumea, 22)

Estatu Batuen okupazioaren garaian Afganistango Meatze eta Petrolio Ministerioaren arabera, Afganistanek gutxienez trilioi bat dolarreko balioa duen ustiatu gabeko mineralak ditu. 2,2 bilioi tona burdin, 1,3 bilioi tona marmol eta 1,4 milioi tona lur arraro dituela kalkulatu da, baita metal baliotsuen erreserbak, eraikuntzako materialen erreserbak, industriarako mineralen erreserbak eta petrolio- eta gas-eremuak ere [Aljazeera, 2021b].

“Utzidazue azaltzen. Dena negozioetara mugatzen da. Duela 100 urtetik kolonialismoa handia den zerbait da. Gaia bilatzen baduzue, Afganistan munduko herrialde pobre handiena eta aberatsena da. Zergatik? Bere mendiengatik. Ez mendiak berak, mendien barruan dagoena baizik: harriak, gasa, petrolio. Baliabide natural guztiak hartu eta joan egiten dira. Dena horretara mugatzen da. Hau heriotza da. Hau hiltzea da, gerra egitea. Dena horretara mugatzen da. Dena negozioetara mugatzen da. Uranioa. Afganistanek uranioa du. Uranio asko mendietan. Dena negozioetara mugatzen da. Jendea ez da garrantzitsua herrialde hauetan”. (Gizona, 25)

Afganistango herritar- rrak erbestean

Talibanak boterera itzuli ondoren, pertsona afganiar askok beren etxeetatik eta herrialdetik ihes egiten jarraitzen dute. 2022. urte amaierako datuen arabera, 3,5 milioi pertsona afganiar baino gehiago desplazatuta daude eta gutxienez 8 milioi pertsona inguru alboko herrialdeetan bizi dira [ACNUR, 2023a]. Era berean, 2,6 milioi pertsona errefuxiatu afganiar daude munduan erregistratuta. Horietatik 2,2 milioi Iran eta Pakistanen erregistratuta daude [ACNUR, 2023b]. 750.000 pertsona errefuxiatu afganiar inguru Iranen erregistratuta daude eta 2,6 milioi afganiar Iranen bizi dira errefuxiatu-estatuturik gabe, nahiz eta azken hauek 2022an gobernuak egindako zenbaketan (headcount) parte hartu duten [ACNUR, 2023b; Europako Batzordea, 2022]. Irango gobernuak 2022an igorritako informazioaren arabera, Iranen bizi diren pertsona afganiarren artean, milioi 1 pertsona inguru talibanak 2021eko abuztuan boterera itzuli ondoren iritsitakoak dira [ACNUR, 2023a].

Halaber, 500.000 pertsona afganiar Iranen paperik gabe bizi direla estimatzen du ACNURek [ACNUR, 2023c].

2021ean, Afganistandik etorritako ia 100.000 pertsonak eskatu zuten asiloa Europar Batasunean [Europako Batzordea, 2022]. 2023ko urtarrileko datuen arabera, pertsona afganiarren asilo-eskaeren %52k soilik jaso zuten Europar Batasunean pertsona errefuxiatu-aitorpena [EUAA, 2023]. Afganistanen arriskuan dauden arren, herrialde batzuek Afganistango asilo-eskatzaile eta errefuxiatuak deportatzen jarraitzen dute. Gainera, Afganistango migratzaile askori asiloa eskatzeko eskubidea ukatzen zaie. Mugara iristean behar bezalako prozedurarik gabe itzuli egiten zaizkie edo harrerako herrialdeetan beste giza eskubideen urraketa batzuk jasan behar izaten dituzte [Amnesty International, 2023a].



Iran: herri afganiarra- rentzat babeslekua?

ACNURek argitaratutako datuen arabera, 2022ko abuztuan Iranek munduko errefuxiatuen populazio handienetako bat hartzen zuen, eta horietako gehienak Afganistango errefuxiatuak ziren. 1979an hasi ziren Afganistango herritarrak kopuru handietan Iranera migratzen, Sobietar Batasunak Afganistan okupatu ondoren: 1980 eta 1989 artean, 2,9 milioi pertsona afganiarrek Iranera migratzeko beren etxeetatik ihes egin zuten [EUAA, 2022]. Garai horretan, Irango Errepublika Islamiko sortu berriaren migrazio-politikak abegitsuak ziren. Ia mugarik gabe hartzen zituzten sobietarren inbasiotik ihesi zihoazen musulmanak. Ikuspegi erlijioso batetik, Afganistango biztanleria hartzea anai-arreba musulmanei laguntzea zen [Naseh et al, 2018]. Afganistango pertsona errefuxiatuek eskubidea zuten osasuna, hezkuntza eta janaria jasotzeko, bai eta lanerako eta inbertsiorako aukera ere [Siavoshi, 2022].

1990. urte hasieran, ordea, migrazio-politikak zorrotzagoak eta murriztaileagoak izaten hasi ziren. Irango gobernuak, Sobietar Batasuna Afganistandik erretiratu ostean, aberriratze akordio bat sinatu zuen Afganistango gobernuarekin eta ACNURekin. Afganistango pertsona errefuxiatuei eskaintzen zitzaizkien gizarte-zerbitzu asko kendu egin ziren, baimendutako lan-kategoriari mugak jarri zitzaizkien eta paperik ez zituzten haur migratzaileei hezkuntza publikoan sartzeko debekatu zitzaizkien [Siavoshi, 2022]. Gainera, Iranen babesa bilatzen zuten afganiarrek, errefuxiatu-estatutua lortzeko, Afganistanen jazarpenak jasaten zituztela frogatu behar zuten [Naseh et al, 2018].

“Iranen hazi nintzen, Isfahan hirian. Bai, Irango gonbidatu bat izan nintzen ia bizitza osoan zehar, baina haiek nahi zutena egin zuten. Eta oraindik nahi dutena egiten dute. Afganistango pertsona errefuxiatuak garenez, gure arnasa ordaintzen ari gara Iranen. Arnasa hartzeko eskubidea ordaintzen dugu”.

(Gizona, 25)

Afganistango gerra zibilak eta talibanen lehen agintaldiak Afganistandik Iranera migrazio-fluxu handiak eragin zituzten. Migrazio-politika gero eta murriztaileagoak izan arren, hurbiltasun geografikoa eta hizkuntzaren eta kulturaren antzekotasunak, Iran herrialdetik ihesi zihoazen pertsonen jomuga izatea eragiten zuen. Estatu Batuek Afganistan inbaditu ondoren, migrazio-politika murriztaileek Irango gobernuaren eta Afganistango gobernuaren eta ACNURen arteko bigarren aberriratze-akordioa sinatzera eraman zuten 2002an. Era berean, Iranek herrialdearen ekialdeko mugak indartu zituen eta Afganistango errefuxiatuei bereziki eragiten zieten neurriak hartu zituen. Iranek aldi baterako bizileku-baimena sartu zuen, bizileku zehaztugabea ordezkatzuz: Amayesh txartelak sartu ziren. Hauek Afganistango pertsona errefuxiatuek herrialdean eman zezaketen denbora eta bizi zitezkeen tokia mugatzen zuten [Naseh et al, 2018]. Gainera, Irango gobernuak Afganistango iheslariak beren bizileku-probintziatik kanpo mugitzeko askatasuna eta lanerako sarbidea ere murriztu egin zituen, eta Afganistango pertsona errefuxiatuei espezializatorik gabeko lau lan-kategoriatan soilik lan egiteko aukera eman zien [Siavoshi, 2022].

“Iranen bizi den pertsona afganiar bezala, lan egiteko aukera duzu, baina beti ere gizartearen maila baxuenean. Ni ia abokatu izatera iritsi nintzen, abokatu izateko nire ikasketen azken urtean nengoen, baina ez zidaten utzi abokatu ofizial izateko azken azterketetara aurkezten. Gobernuari berdin zaio zenbat urtez ikasten dugun, edo hizkuntza berdina hitz egiten dugula, edo historia bera dugula, edo sinesmen berdinak ditugula... Lan gogorrenak burutu behar ditugu. Unibertsitatean izena eman nahi duzunean ere, ikasketak amaitzen dituzunean herrialdea utzi behar duzula esaten duen paper bat sinarazten dizute”.

(Gizona, 25)

2005etik aurrera politika murriztaileek okerrera egin zuten. Gobernuak 100.000 pertsona afganiar inguru deportatu zituen, eta probintzia eta hiri batzuek afganiarrak bertara sartzea debekatu egin zuten. Herrialdearen ekialdeko mugen kontrola indartu egin zen, eta pertsona migratzaileak erregulatzeko, erregistratzeko eta kontrolatzeko atxilotze zentroak ezarri ziren. Era berean, ama iraniarra eta aita afganiarra zuten haurrei herritartasuna ukatu zitzaien [Siavoshi, 2022]. Gobernuak murrizketa gehiago ezarri zieten paperik ez zuten pertsona afganiarrei Amayesh txartela lortzeko. Hori gutxi balitz, Afganistandik zetozen pertsonak errefuxiatu gisa erregistratzeari ere utzi egin zioten. 2007tik aurrera, aurrez balio zuen Amayesh txartel batekin erregistratuta dauden pertsonak soilik dute txartel hau berrizatzeko aukera. Honek Iranen paperak dituen pertsona errefuxiatu gisa bizitzea ahalbidetzen du. Dokumenturik ez duten pertsona afganiarrak atxilotzeko eta deportatzeko arriskuan daude [Naseh et al, 2018].

“Emakume afganiar batentzat, hezkuntza Iranen oso zaila da. Ni bertan egon nintzen eta niretzat zaila izan zen. Ezinezkoa zitzaidan nire materia gustokoena ikastea. Ezin nuen ikasi. Errefuxiatu bat nintzela esaten zidaten”.

(Emakumea, 18)

“Dokumenturik ez genuenez, ezin izan ginen eskolara joan”.

(Emakumea, 16)

2015 urtetik aurrera, politika migratzaileak leundu egin ziren eta haur afganiar guztiei, paperak izan ala ez, hezkuntzarako eskubidea onartu zitzaien. 2019an, bikote ezkondu mistoen seme-alabei, hots, ama iraniarra zuten haurrei, Irango herritartasuna ematea lortu zen [Siavoshi, 2022].

Hala ere, 2019tik aurrera, Afganistango errefuxiatuekiko migrazio-politikak beste behin gogortu egin ziren eta aberriratutako edo kanporatutako afganiarren kopurua handitu egin zen. 2021ean talibanak boterera itzultzearekin batera, Afganistandik Iranera beste migrazio-fluxu bat gertatu zen eta Irango gobernuak errefuxiatu berririk onartuko ez zuela esan zuen. Errepublikak Islamikoak murrizketa zorrotzekin eta deportazioekin jarraitzen du [Siavoshi, 2022]. ACNURen arabera, Iranera babes bila iristen diren afganiarren %65 gobernuak itzuli egiten ditu [ACNUR, 2023c].

Politika eta erlijioa: Irango Iraultza edo iraultza islamiarra

“Irango gobernuaren egitura ahula da.

Talibanen pentsamoldearen antza du, gobernuaren egitura ere musulmana delako.

Iranen politika eta erlijioa elkarrekin doaz.

Politikariek hijab-a eraman behar duzula eta musulmana izan behar duzula diote.

Hau arazo bat da jendearentzat. Jendeak politika eta erlijioa bereizi nahi ditu, bi gauza desberdin dira, ez daude lotuta. Eta

askatasuna behar dugu: janzten dugun arropa aukeratzeko, gure pentsatzeko modua aukeratzeko, geure burua adierazteko...”

(Emakumea, 18)

1979ko iraultza islamiarrak aldaketa handia ekarri zuen Irango gizartean. Estatu hura monarkia izatetik Islamiar Errepublikak izatera pasatu zen, eta erlijio estatuaren ardatz nagusi bilakatu zen. Erresuma Batuaren eta Estatu Batuen babesa zuen eta Mendebaldearen alde zegoen monarkia autoritario batetik zetorren Iran. Pahlavi dinastiako monarkia hau 1926an hasi zen, Reza Jan Pahlavi jeneralak estatu kolpe bat eman eta bere burua errege (xah) izendatu zuenean. Bere erregealdian Mendebaldeko gorteko erreformak egin zituen. Hauen artean, emakumeei beloa jendaurrean eramateko debekua nabarmentzen da. Gainera, disidentzia ororen aurkako bere errepresio-kanpainak herritarren eta kleroaren atsekabea eragin zuen. Mohamed Reza Pahlavi semearen agintaldian, xah-ak Erresuma Batuak petrolio ustiatzea ahalbidetu zuen, eta

horrek herritarren gaitzespen publikoa eragin zuen. Horren ondorioz, Fronte Nazionala erakunde politikoak petrolio nazionalizatu zuen. Baina bi urte geroago, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek, xah-aren laguntzarekin, estatu kolpe bat egin zuten euren ustiapena berreskuratzeko. Ordutik aurrera, xah Mendebaldearekin elkarkidetu zen, eta barneko oposizioaren aurkako politikak gogortu zituen [El orden mundial, 2022]. Biztanleriaren nahigabea hazi egin zen. Xah eta bere familiari erregimen tirano eta ustel baten buru izatea leporatzen zien. Xah-ak manifestazioei errepresioa areagotuz erantzun zien. Protesten atzean monarkiari uko egitea nahi zuten pertsona sorta bat zegoen. Ideia oso ezberdinak zituzten pertsona talde desberdinek errefusatu zuten monarkia. Hauen artean ikasle liberalak, komunistak eta fundamentalista islamiarrak zeuden. Azken hauek iraniar ugari bildu zituzten erlijioaren inguruan eta gero eta indar handiagoa hartu zuten protestetan [France24, 2022].

Manifestazioak areagotuz joan ziren eta 1977an Irango Iraultza hasi zen. Iraultza honetan xah Pahlavik eta 2.500 urtez iraun zuen persiar monarkiak boterea galdu zuten. Xah-aren neurriei zuzen-zuzenean aurre egin zion gizona Ruhola Khomeini kleroaren buruzagia izan zen. Irango kleroak, 1979an erbestetik itzuli eta Errepublika Islamikoa aldarrikatu zuen. Biztanleriaren %99k berretsi zuen aldarrikapena. Horrela, lege islamikoak gidatuta, Iran teokrazia errepublikano, autoritario eta anti-mendebaldir bihurtu zen [El orden mundial, 2022].

Emakumeen eskubi- deak Iranen

“Erlijioa izan zen orain dela 44 urte iraultza ekarri zuen arrazoi bakarra. Khomeini eta bere gobernuak dena kontrolatu zuten. Afganistanen talibanak egiten ari diren bezala, mugak jarri zituzten. Iranen gauza bera gertatu zen. Iranen lehenengo hauteskunde presidentzialetatik, 1980tik, manifestazioak egon ziren. Urtean behin, urtean birritan. Jende asko hil zuten. Jendea exekutatzen zuten, baina ez denak batera. Aldi bakoitzean eremu desberdin batean hiltzen zuten jendea”. (Gizona, 36)

Iraultza islamiarraren garaian eta Errepublika Islamikoa aldarrikatu ondoren, urkatzeak eta espetxeratze masiboak burutu ziren. Milaka pertsona hil ziren eta ehunka milak Iran utzi zuten. Errepublika Islamikoak neurri berriak jarri zituen martxan: komunikabideei kontrolak ezarri zitzaizkien eta Irango biztanleria Mendebaldeko eraginetik isolatuta geratu zen, leku publikoetan sexuen bereizketa ezarri zen, emakumeak beloa erabiltzera behartu ziren, alkohola kontsumitzea debekatu zen, telebistan musika-tresnak debekatu ziren, etab. Moralaren poliziak debeku horiek guztiak betearazten zituen. Eta gaur egun ere hala egiten jarraitzen du [The New York Times, 2019].

Errepublika Islamikoa ezarri ondoren, emakumeek beren eskubideetako asko galdu zituzten. Erabat gizonen menpe geratu ziren: aitaren edo anaien menpe lehenik, eta senarraren menpe gero. Emakumeek ikasi edo bidaiatu ahal izateko, gizonei baimena eskatu behar zieten [France24, 2022]. Dibortziorako eskubidea galdu zuten, eta legezko heldutasun-adina 9 urtera murriztu zen neskontzat eta 14 urtera mutilentzat. Aldaketa hori konstituzioan finkatu zen, eta 9 urterekin hasi ziren neskak ezkontzen. Gainera, aldi baterako ezkontza ez zen legez zigortu, eta argi eta garbi animatzen zuten. Horrela, ezkontza iraunkorretatik kanpo eta mugarik gabe, gizonek aldi baterako edo plazerezko ezkontzak egin zitzaizketen. Aldi baterako ezkontza horiek ordubetetik 99 urtera arte irauteko aukera zuten [Hoodfar, 2009].

“Iran eta Afganistanek, beste hainbat herrialdek bezala, Islam-aren izena erabiltzen dute nahi dutena egiteko. Boterean egoteko, eta nahi dutena egiteko. Eta emakumeari hazten ez uzteko”. (Gizona, 25)

Khomeini Aiatolak emakumeak ezin zirela epaile izan iragarri zuen. Emakumeak maila baxuagoan ezarri zituen; lekuko ziren bi emakumeri gizonezko baten balio bera ematen zitzaien. Era berean, hondartzetan, ekitaldi publikoetan eta garraio publikoan bereizketa ezarri zen. Gainera, eta emakumeak etxean gelditzeko asmoz, erregimenak haurtzaindegiak itxi zituen [Hoodfar, 2009].

Emakumeen eskubideak etengabe urratzen ari ziren testuinguru honetan, emakumeek manifestazioak eta protestak egin zituzten. Horietatik nabarmentzekoa da 1979ko martxoaren 8an, Errepublika Islamikoa ezarri eta hilabetera, milaka emakumek egindako protesta. Erregimena hartzen ari zen neurri errepresiboak aurre egiteko, ideologia desberdinetako emakume aktibistek bat egin zuten. Horren ondorioz, protestetan parte hartu zuten emakumeetako batzuk espetxeratu edo erbesteratzera behartu zituzten [Hoodfar, 2009].

Emakumeak beren eskubideak errespetatzeko antolatzen eta borrokatzen jarraitu zuten eta hobekuntza batzuk lortu zituzten. Iran-Irak gerraren amaiera (1980-1988) eta Aiatola Khomeiniren heriotza inflexio puntu bat izan ziren. 90eko hamarkadaren hasieran, etxeko lanengatik soldatak ematen zituen lege bat onartu zen. Horrela, urte askoan ezkondata egon ondoren dibortziatutako emakumeek etxean egindako lanengatik konpentsazioa jasotzeko aukera izan zuten. Emakumeen aktibismoak aurrera jarraitu zuen eta haien protestak sarritan erreprimituak izan ziren [Hoodfar, 2009]. Era berean, janzkera erresistentzia modu batean bilakatu zen eta emakume batzuek beloa behar bezala ez erabiltzea erabaki zuten [BBC, 2019].

“Irango egoera oso zaila dela uste dut. Emakumea izanik eta gainera errefuxiatu afganiarra, oso zaila da Iranen bizitzea”.
(Emakumea, 19)

Gaur egun, emakumeen eskubideak urratuta daude oraindik. Iranen emakumeak eta neskatok bigarren mailako herritar gisa tratatzen jarraitzen dituzte. Legez, neska bat 13 urterekin ezkon daiteke, baina aitaren edo epailearen baimenarekin neska gazteagoak ere ezkon daitezke. Irango gobernuaren datuen arabera, 2021ean 10 eta 14 urte bitarteko 16.000 neskatok ezkondu ziren [UN Human Rights, 2021], eta emakume ezkonduak ezin dira herrialdetik irten senarren baimenik gabe [Human Rights Watch, 2015]. Ezkontzaz kanpoko sexua jipoiekin kriminalizatuta dago ezkondata ez dauden kasuetan, eta heriotzarekin ezkondata daudenean. Hala ere, lege horrek bereziki emakumeei eragiten die, haurdunaldia sexu-harreman baten ebidentzia baita. Gainera, sexu-indarkeria salatzen duten emakumeak auzipetuak izan daitezke, agintariak sexu-harremana adostua izan zela uste badute. LGBTIQ+ biztanleriaren eskubideei dagokienez, harreman homosexualak jipoiekin zigortuak daude eta gizonen kasuan heriotza-zigorrarekin [Human Rights Watch, 2022b].

Emakumeak jendaurrean hijab-a edo beloa eramatera behartuta daude, eta publikoki belorik gabe agertzen diren emakumeak kartzelara joateko, jipoi bat jasotzeko edo isun bat jasotzeko arriskuan daude. Lege horiek 9 urtetik gorako emakume eta neska guztiei aplikatzen zaizkie, hori baita Irango neskatoen erantzukizun kriminaleko gutxieneko adina. Praktikan, agintariak beloa inposatu diote oinarrizko hezkuntzan hasten diren 7 urteko neskatoei ere [Amnesty International, 2022b].

Mahsa Aminiren heriotza salatzen duen protesta oldea

Moralaren polizia arduratzen da emakumeen janzkera egokia izateaz, eta horregatik atxilotu zuten Teheranen Mahsa Amini, 22 urteko gazte kurdua, belo islamiarra gaizki jarrita zeramala iritzi. Mahsa Amini poliziaren zaintzapean hil zen Teherango ospitalean, 2022ko irailaren 16an, atxilotze-zentrotik koman eraman eta hiru egunetara [Amnesty International, 2022b]. Haren heriotzaren ondorioz, emakumeak buru zituen hainbat protesta hasi ziren.

“Gertatzen ari den emakumeen iraultzarekin, emakumeak boterea hartzen ari dira. Erabakiak hartzen ari dira, kaleak hartzen ari dira, ozen hitz egiten ari dira...”
(Emakumea, 19)

“Emakumeen iraultza bat da, lehen aldiz emakumeak buru dituen. Alde batetik, oso harro nago, baina beste alde batetik, islamiar terrorearen erregimena da”. (Gizona, 36)

“Oso protesta indartsua da. Gobernuak jendea hiltzen ari dela ikusten dudanean, protestetan parte hartzen ari den jendea oso ausarta dela pentsatzen dut. Protestak beren bizitzarekin ordaintzen ari dira, benetan merezi izatea espero dut”. (Emakumea, 22)

Erregimenak gogor zapaldu ditu protestak. Human Rights Watch-ek dokumentatu duenez, segurtasun indarrek eskopetak, eraso-errifleak eta pistolak erabili zituzten modu baketsuan manifestatzen ari ziren pertsonen aurka. 2022ko azaroaren 14an, giza eskubideen aldeko hainbat talde, 52 haur barne zituen 341 manifestariren heriotzak ikertzen ari ziren. Halaber, Mahsa Aminiren heriotzak eragindako protesten testuinguruan, Irango segurtasun indarrek emakumeen eskubideen aldeko ehunka aktibista, giza eskubideen defendatzaileak, ikasleak, abokatuak, kazetariak eta abar atxilotu dituzte [Human Rights Watch, 2022b]. Agintariak manifestariak modu arbitrarioan atxilotzen jarraitu zuten, eta 22.000 pertsona baino gehiago atxilotu dituztela onartu dute. Gainera, Irango agintariak heriotza-zigorra erabiltzen ari dira poliziaren errepresio tresna gisa eta herritarrak protestetan parte hartzeko asmoa kentzeko presio neurri gisa. 2022ko abenduan eta 2023ko urtarrilean lau manifestari exekutatu zituzten [Amnesty International, 2023b].

“Arreta Irango emakumeengan dago, baina Iranen emakume errefuxiatuen egoera zaila da. Lagunekin hitz egiten ari naiz, eta ez dakite zer egin behar duten. Ez dakite mugimendu hau babestu behar duten. Inor ez dago ziur zer gertatuko zaien manifestatzen badira. Arriskua handiagoa da pertsona errefuxiatuentzat. Baliteke afganiarrak izateagatik erbestera edo erailteza”.

(Emakumea, 19)


Iranen bizi diren Afganistango emakume errefuxiatuek azken hamarkadetan bizi izan duten errepresioa kontutan hartuta, ulergarria da manifestazioetan parte hartzeko beldurra izatea. Honi etnia eta erlijio minoritarioak jasaten ari diren diskriminazioa eta indarkeria gehitzen badiogu, beldur hori are hobeto ulertzen da [Amnesty International, 2023c]. Hala ere, emakumeek gidatutako borroka hau dela eta, Irango eta Afganistango emakumeen artean lotura berriak sortzen ari dira.

“Iranen gertatutakoaren ondoren, bereziki emakumeen konexioa beste modu batekoa dela uste dut. Irango eta Afganistango emakumeak benetan konektatuta sentitzen dira. Lehen loturarik ez genuela sentitzen nuen beti. Iranen jaio nintzen, 15 edo 16 urtez bizi izan nintzen han, baina ez nuen inoiz Irango lagunik izan. Eta iraultza honen ondorioz, Iran pixka bat aldatzen ari dela diote nire lagunek”.

(Emakumea, 19)

“Irango eta Afganistango emakumeek arauak hautsi dituztela uste dut eta herrialde hauek elkartzeko lan handia egiten ari direla ere uste dut. Duela mende asko izan genuen harremana berreraikitzen hasi dira. Mugimendu ona dela uste dut”.

(Emakumea, 26)



Protestak Alemaniatik

“Irango protestek arreta handia piztu dutela uste dut. “Emakumea, bizitza, askatasuna” lemari buruz hitz egiten dugunean alemaniarrekin, beraiek ere parte hartzen saiatzen dira, komunikabideetan ere asko hitz egin baita horri buruz. Baina afganiarrekin desberdina da, gaiaz hitz egiten duzunean, ez dute nahastu nahi”.
(Emakumea, 19)

“Protestak hasi zirenetik, konektatuta sentitu nintzen, eta sare sozialetako ekintzetan edo manifestazioetan parte hartzen hasi nintzen. Sare sozialetan zabaltzen eta erakusten nuenean, gizonak zera esaten zidaten: “Zertan ari zara? Zergatik babesten dituzu? Iraniarrak dira”. Erreakzio hori gizonengandik zetorren, bai gizon afganiar eta baita gizon iraniarrendik ere. Baina emakume afganiar eta iraniarrek babestu egiten zidaten”.
(Emakumea, 26)

Iran gaur egun: giza eskubideak eta klima aldaketa

Gaur egun, eta Amnesty International-ek 2023aren hasieran argitaratutako txosten baten arabera, Iranek adierazpen askatasunaz gain, elkartzeko eta biltzeko askatasuna ere urratzen jarraitzen du. Mahsa Aminiren heriotzari erantzuteko egin diren protestez gain, beste protesta eta manifestazio batzuk ere zapaldu egin dituzte eta manifestariak modu arbitrarioan atxilotu dituzte. Agintariak telebista-kateak zentsuratu dituzte, eta 2022ko irailetik aurrera, aplikazio mugikorren zerrenda handi bat blokeatu edota filtratu dituzte: Whatsapp, Instagram, Facebook, Signal, Telegram, Twitter eta YouTube. Etnia eta erlijio minoritarioek (etnia kurduak, balutxiak, turkmenak... eta erlijio kristauak, juduak, sunitak) eta pertsona errefuxiatu eta migratzaileek diskriminazioa jasaten jarraitzen dute. Hezkuntzarako, lanerako, adopzioarako eta abarretarako sarbidea murriztuta dute. Era berean, 2022an heriotza-zigorragatik exekuzioak areagotu egin ziren eta bi urteko etenaldiaren ostean, exekuzio publikoak berriz ezarri ziren. Bestalde, agintariak erabat zigorgabeak dira. Izan ere, ez da inongo ofizial publikorik ikertu edo ez da inor erantzule egin judizioz kanpoko exekuzioengatik, ezta 2022an eta aurreko urteetan gertatutako beste heriotza, tortura, nahitaezko desagertze edo giza eskubideen urraketengatik ere. Gainera, agintariak segurtasun indarrek protestetan hildako pertsonen benetako kopurua ezkutatu egin dute, eta kasu batzuetan, haurren kasuak barne, heriotzak bere buruaz beste egitearen ondorio izan zirela ziurtatu dute [Amnesty International, 2023c].

“Zarina, 16 urteko emakumea, harrapatu egin zuten. 8 lagunek bortxatu eta gero, 8 solairuko eraikin batetik bota zuten. Bere buruaz beste egin zuela esan zuten. Eta hori ez da adibide bakarra. Manifestariak ere kartzelara eramaten dituzte, bi hilabetez atxilotzen dituzte, gero askatu egiten dituzte eta bizpahiru egunen buruan beren buruaz beste egiten dute. Morfina injektatzen diete, morfina bortitza, eta 2-3 egunen ondoren horregatik hiltzen dira, ez dute beren buruaz beste egiten”. (Gizona, 36)

Ingurumen-adituek Iran jasaten ari den ingurumen-krisiari aurre egiteko politika ez egitea kritikatu dute. Iran lakuak, ibaiak eta hezeguneak galtzen ari da, eta baso-soiltzeak eta airearen eta uraren kutsadurak krisi klimatikoan eragiten ari dira. 2022ko uztailan, Iran Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpenetik abstenitu ziren zortzi herrialdeetako bat izan zen. Bertan, ingurumen garbi, osasuntsu eta jasangarria lortzea giza eskubide bat dela onartu zen [Amnesty International, 2023c].

“Iranen lakuak zeuden eta gobernuak hauek babesteko zerbait egin zezakeen. Baina ez du egin. Dagoeneko lehortu den laku ospetsu bat zegoen. Garrantzitsua zen. Munduko laku gazirik handiena zela uste dut, eta oso hunkigarria izan zen aktibista klimatiko askorentzat. Ez zioten jaramonik egin eta lehortu egin zen. Isfahan hirian ere beste ibai bat zegoen. Oso handia zen eta jende asko erakartzen zuen. Bestalde, lehoiabar iraniarra ere galtzeko arriskuan zegoen eta gobernuak hori saihesteko zerbait egin zezakeen”. (Emakumea, 19)

“Kutsadura itzela da”. (Emakumea, 26)

Airearen kutsadura, ur falta eta nekazaritza-lurren desertifikazioa biztanleriaren mugimenduan eragin dezaketen faktoreak dira. Jendea etxe eta bizimodu jasangarri eta iraunkorrago baten bila abiatzearen eragile garrantzitsuak dira. Ur-eskasia nekazariengan eragiten ari da, eta horietako asko beren etxeak eta herriak uzten ari dira, hiri-kanpoaldetan kokatzeko [Khani, 2022].

Irlandik etorri diren elkarrizketatuko pertsona asko afganiarrak dira, eta Irlandik ihes egiteko arrazoi nagusien artean Iranen pertsona errefuxiatu gisa bizi behar izan dituzten giza eskubideen urraketak daude. Giza eskubideen eta emakumeen eskubideen urraketa ere Irlandik datozen migrazio-fluxuen atzean daude. Bestalde, klima-aldaketa eta ingurumen-krisia biztanleriaren mugimenduetan gero eta eragin handiagoa duten faktoreak dira, bai herrialde barruan, bai eta mugetatik kanpo ere.

Gasa Iranen

“Iranek gas erreserba handiak ditu; izan ere, gasa duen munduko leku handienetako bat da. Baina gaur egun gobernuak geldiarazi egin du eta jendeak ez du gas hori erabiltzeko eskubiderik”.
(Emakumea, 26)

“Eta orain neguan hotz handia egiten du, eta arazoak dituzte gasarekin. Ez dute gasik”.
(Emakumea, 19)

ER

R

03

**HARRERA-HERRIALDEETAN
ERRONKAK**

O

N

KA

K

Testuinguru orokorra: asilo eskaerak, nazioarteko babesak eta bizileku-baimena

ACNURek 2022aren erdialdean argitaratutako datuen arabera, Alemania errefuxiatu gehien hartzen dituen munduko hirugarren herrialdea da [ACNUR, 2023d]: 2,2 milioi pertsona errefuxiatu daude erregistratuta Alemanian. 2022an, 244.132 pertsonak eskatu zuten asiloa Alemanian. Zifra hau 2021ean eta 2020an jasotako asilo-eskaera kopurua baino handiagoa da. Asilo-eskatzailen jatorrizko herrialde nagusiak Siria, Afganistan, Turkia, Irak, Georgia eta Iran izan ziren. Urte amaieran, 136.448 asilo-eskaera ebatzi gabe zeuden oraindik. 2022an ebatzi ziren asilo-eskaeren artean, aitorten-tasa %072,3koa izan zen eta asilo-eskaeren %027,7 ukatu egin ziren [AIDA, 2022a].

Elkarrizketatutako pertsona asko Afganistan eta Irlandik datozela kontutan hartuta, nabarmentzekoa da 2022an Afganistandik etorritako 41.471 pertsonak eskatu zutela asiloa. Ebatzi ziren eskaeretatik %023k errefuxiatu-estatutua lortu zuten, %05,1ek babes subsidiarioa eta %071,2k babes humanitarioa. Bestalde, Irlandik etorritako 7.350 pertsonak eskatu zuten asiloa Alemanian, eta tramitatu ziren eskaeretatik %055,1 atzera bota ziren. %039,1ek errefuxiatu-estatutua lortu zuten, %04,1ek babes subsidiarioa eta %01,7k babes humanitarioa. Urtea amaitu aurretik asilo-eskaeren %072 ez ziren ebatzi [AIDA, 2022a].

	Eskaerak 2022an	2022 amaieran ebatzi gabe	Errefuxiatu-estatututa	Babes subsidiarioa	Babes humanitarioa	Ukatutako asilo eskaerak
Guztira	244.132	136.448	40.911	57.532	30.020	49.330
%			%023	%032,4	%016,9	%027,7
Afganistan	41.471	27.594	8.539	1.903	26.499	260
%			%023	%05,1	%071,2	%00,7
Iran	7.350	5.274	1.252	133	53	1.768
%			%039,1	%04,1	%01,7	%055,1

Nazioarteko babesa duten pertsonen zehaztutako epe jakin batean Alemanian bizitzeko baimena dute:

- Errefuxiatu-estatutua duten pertsonen Alemanian hiru urtez bizitzeko baimena dute.
- Babes subsidiarioa duten pertsonen urtebetez bizitzeko baimena dute (beste bi urtez luzatu daitekeena).
- Babes humanitarioa duten pertsonen Alemanian urtebetez bizitzeko baimena dute.

Hiru kasuetan bizileku-baimena berri ahazteko, nahitaezkoa da lehenengo instantzian baimena eman zeneko arrazoiak indarrean mantentzea [AIDA, 2022a].

“Nik ez dut asilorik, nire herrialdea u honetan bizitzen ari den egoera dela eta egon naiteke hemen. Momentu honetan Afganistango egoera ona ez denez, hemen urtebetez bizitzeko baimena eman didate”.
(Gizona, 27)

Epe luzerako bizileku-baimena lortzeko, errefuxiatu-estatutua duten pertsonentzat bi bide daude: 1) Lehenengo aldiz bizileku-baimena lortu eta hiru urtera, alemaneko C1 maila izatea, bizitza-kostuen zati handi bat ordaintzeko gai izatea eta familiakoekin bizitzeko toki nahikoa izatea beharrezkoak dira, 2) Alemanian bost urtez bizi ondoren (asilo-prozesuak iraundako denbora barne), alemaneko A2 maila izatea, bizitza-kostuen zati handi bat ordaintzeko gai izatea eta beren familiarekin bizitzeko espazio nahikoa izatea beharrezkoak dira. Babes subsidiarioa edo babes humanitarioa duten pertsonen kasuan, epe luzerako bizileku-baimena eskatzeko aukera dute:

Alemanian gutxienez bost urtez bizi izan badira (asilo-prozesuak iraundako denbora barne), bizi-kostu guztiak ordaintzeko gai badira eta beren familiarekin bizitzeko leku nahikoa badute. Gainera, gutxienez 60 hilabetez zergak ordaindu dituztela frogatu behar dute, eta horrek, gutxienez 5 urtez lanean aritu direla esan nahi du [AIDA, 2022a].

“Gehienetan, asilo-eskaerak ukatu egiten dira, eta horren ondoren zer egiten duzun ikusi behar duzu. Lan bat bilatzen baduzu eta zure kabuz mantentzeko aukera baldin baduzu, agian bizileku-baimena lortzeko aukera izan dezakezu. Baina ez duzu automatikoki jasotzen”. (Gizona, 27)

Alemaniar hiritartasuna lortzeko, kasu gehienetan asilo eskatzaileak Alemanian legalki eta etenik gabe 8 urtez bizitzea beharrezkoa da [AIDA, 2022a].

“Hemengo sistema aurrez dena antolatuta egongo balitz bezala da. Plan bat dago eta bide bat jarraitu behar duzu hemen geratu nahi baduzu”. (Gizona, 27)

“Alemanian denbora behar duzu. Batez ere hasieran, herrialdea ezagutzen ez duzunean, oso zaila da. Bidea ezagutzen duzunean, prozedura ezagutzen duzunean, zure ibilbidea aurki dezakezu”.
(Emakumea, 22)

Alemanian asiloa eskatzea: harrera eta ostatu

Asilo-eskaerak harrera-zentroetan edo instalazioetan egiten dira, eta asilo-eskatzailea erregistratu ondoren, iritsiera-ziurtagiria ematen zaio. Jarraian, zein eskualde edo Bundesland (alemanieraz) dagokion jakinarazten zaio [AIDA, 2022a]. Kasu batzuetan egokitutako eskualdea erregistro-eskualdearekin bat dator, baina ez da horrela izaten beti.

“Hona iritsi ginenean kanpamentura joan ginen zuzenean. Asiloa eskatzen duzunean, joan behar duzun kanpamentu bat esleitzen dizute, eta han astebetetz edo bi astez egoten zara. Bertan azterketa bat egiten dizute: gorputza, osasuna, odola... Eta gero gobernuaren asilo-bulegora (BAMF) joan behar duzu. Oinarrizko galderak egiten dizkizute eta zure izena errefuxiatuak banatzeko sistema batean sartzen dute, iritsi berri diren errefuxiatuak jasotzeko zein eskualdetan dagoen lekua ikusteko. Asiloa eskatu ez duzun beste eskualde batera bidaltzeko aukera duzu”. (Emakumea, 19)

Asilo-eskatzaileen mugitzeko askatasuna mugatuta dago eta ez dute beraien bizilekua aukeratzeko eskubiderik. Are gehiago, harrera-zentroa dagoen eskualdean egon behar dute, eta BAMF-en baimenik gabe, ezin dira esleitutako eremutik irten. Eskualde batzuek murrizketa geografikoa zabaltzeko aukera dute, eta kasu hauetan asilo-eskatzaileek beste eremu edo eskualde batzuetara bidaiatzeko aukera izaten dute [AIDA, 2022a].

“Berdin zaie familia duzun ala ez. Lagun baten familia ez zen elkarrekin etorri. Bera, bere ama eta anai-arreba batzuk Berlinen onartu zituzten. Baina bere aita eta anaia beranduago etorri ziren Alemaniara eta beste hiri batera bidali zituzten. Aita Berlinera etorri ahal izateko tramite ugari egin behar izan zituzten. Baina anaia oraindik urrun dago, eta bakarrik Hamburgon dago”. (Emakumea, 19)

“Arau bat dago. Eskualde honetan eskualde barruan soilik mugitzeko eskubidea duzu. Ezin zara beste eskualde batera joan”. (Gizona, 36)

Ostatuari dagokionez, asilo-eskatzaileak denboraldi batez dagokien harrera-zentroan edo iritsiera-zentroan egon behar dute. Denboraldi hau 18 hilabetera arte luzatu daiteke [AIDA, 2022a]. Asilo-eskatzaile askok harrera-zentro edo iritsiera-zentro hauei kanpamentu deitzen diote.

“Alemaniara iristean pertsonen gehiengoa kanpamentura [harrera- edo iritsiera-zentror] joan behar da. Lehenengo kanpamentu honetan familiaren edo pertsonaren erregistroa egiten dute. Erregistro-agiri guztiak aurreneko kanpamentuan egiten dira”. (Emakumea, 22)

“Kanpamentutik 3 egunetarako soilik irten zaitezke. 3 egunen ostean ez bazara itzultzen, zure asilo-prozesua hasieratik hasi behar duzu”. (Gizona, 27)

“Ez da erraza. Kanpamentuan sukalde bat daukagula esaten dute. Baina ez da egia. Bai, sukalde bat dago, baina itxi egiten dute. Inork ezin du erabili. “Zinema areto” bat ere badago; telebista bat duen eta 10 pertsona sartzen diren gela bat da, eta gaueko 21:00etatik 22:00etara edo 23:00etara soilik irekitzen dute. 500 pertsonetatik, 10 bakarrik joan daitezke. Eta zein hizkuntzatan? Ingelesez”. (Gizona, 36)

Harrera-zentroan edo iritsiera-zentroan egoteko betebeharrak amaitzen denean, asilo-eskatzaileek ostatu kolektibo deritzon zentroetan hartu behar dute ostatu. Ostatu kolektibo hauek normalean eskualde berean kokatzen dira [AIDA, 2022a]. Asilo-eskatzaile askok ostatu kolektibo hauei Heim (alemanez aterpetxea edo egoitza esan nahi du) deitzen diete.

“Lehenik eta behin, kanpamentura joan behar zara eta bertan zehaztu gabe dagoen denboraldi batez egon. Hiri bakoitzak bere arauak ditu. Hiri batzuetan, 6 edo 7 hilabeteren ostean, edo agian denbora gehiago, kanpamentutik ateratzeko aukera izan dezakezu. Ondoren Heim [edo ostatu kolektibora] joan behar zara. Heim deitzen diote, baina kanpamentu baten modukoa da. Lehenengo kanpamentua [edo harrera-edo iritsiera-zentroa] baino hobeto dago, sukaldatzeko aukera duzulako. Pixka bat hobeto dago, baina ez hainbeste”. (Gizona, 27)

“Bi kanpamentutan egon ginen eta orain Heim-en gaude. Baina Heim-a kanpamentu bat bezalakoa da. Dagoen ezberdintasun bakarra bertan sukaldatzeko aukera dugula da. Kanpamentuan janaria eman egiten dizute”. (Emakumea, 22)

“Orain Heim batean gaude. Hiru kanpamentutan egon ostean hona lekualdatu gintuzten. Inoiz ez nuen imajinatuko horrelakorik Alemaniari buruz. 3 kanpamenturen ondoren edo 6 hilabete igaro ondoren, etxe batera lekualdatuko gintuztela entzuna nuen. Baina Heim batera eramán gintuzten eta ez dago batere ondo.

Eta pertsona batzuentzat guretzat baino okerragoa da oraindik. Komuna kanpoan dago, beraz komunera joateko kanpora atera behar duzu. Zaila da. Grezian komuna eta sukaldea gure kontainerrean zeuden, baina hemen dena partekatu behar dugu”. (Emakumea, 19)

“Ez dago garbi. Eta dutxatzera zoazenean, kanpora irten behar duzu, dutxak beste eraikin batean daudelako. Neguan latza da”. (Gizona, 23)

Heim edo bizitoki kolektiboaren ondoren, litekeena da asilo-eskatzailleak, BAMF-ek esaten duen bezala, deszentralizatutako apartamentu edo ostatu batera eramatea. Hala ere, eta ProAsyl GKE alemaniarrek

argitaratutako datuen arabera, asiloa eskatzen duten pertsonak apartamentu bat lortzeko zailtasunak dituzte. Zailtasun horiek nabariagoak dira Ukrainako errefuxiatuen ostatu-estatistikekin alderatuz gero. ProAsyl-en arabera, Ukrainatik datozen errefuxiatuen %74 apartamentu pribatuetan bizi dira, eta %9 bakarrik bizi dira ostatu kolektiboetan edo Heim batean. Gainera, Ukrainatik ihes egin duten pertsonak senideekin, lagunekin, ezagunekin edo beste ostatu pribatu batzuetan ostatu hartzeko aukera ere badute. Alabaina, beste herrialde batzuetatik (Siria, Afganistan, Irak, Iran, etab.) datozen asilo-eskatzailleen errealitatea desberdina da. Harrera-zentroetan edo iritsiera-zentroetan bizi behar dute (edo kanpamentuetan, asilo-eskatzailleek beraiek deitzen dieten bezala), gehienez ere 18 hilabetez. Errefuxiatutzat edo babes subsidiarioa duten pertsonatzat hartzen direnean bakarrik izango dute gobernuak emandako apartamentu pribatu batean bizitzeko aukera. Gainera, asilo-eskatzailleek ez dute baimenik senideen, lagunen eta abarren apartamentu pribatuetan edo bestelako bizitoki pribatuetan bizitzeko [ProAsyl, 2023].

“Geroago etxe bat lortzeko aukera duzu. Momentu honetan nahiko zaila da. Errefuxiatu asko etorri dira Ukrainatik eta hauek toki eta apartamentu guztiak hartu dituzte”. (Gizona, 27)

“Dokumentuak jasotzen dituzunean, apartamentu batean bizitzeko eskaera egin dezakezu. Baina gobernuak esango dizu zein apartamentutan bizi behar duzun”. (Emakumea, 19)

ProAsyl erakundeak kanpamentu eta ostatu kolektiboetan pertsonak isolatuta daudela salatu du. Pribatutasunik gabe eta aholkularitza edo bestelako laguntzarik gabe aurkitzen direla salatu dute [ProAsyl, 2023].

“Logela bakoitzean herrialde ezberdinetako 4 edo 5 pertsona egon zaitezketekete. Ez dago pribatutasunik, ez dago telebistarik, ez dago internet, ez dago ezer. Ez dago eskolarik, ez dago lanik. 16 hilabete horrela pasatzeak edonor zoratu dezake. Ez du axola nondik zatozen. Ateratzean, arazoak ikusten dituzu. Jendeak negar egiten du”. (Gizona, 36)

“Schneebergen (Saxonian) kanpamentu bat dago, eta bertara lekualdatzea amesgaizto bat da. Hiritik urrun dago. Dendara joateko baso bat zeharkatu behar duzu eta 45 minutu behar dituzu. Ez dago autobusik”. (Gizona, 36)

“Kanpamentuetara joaten gara eta bertan bizi diren emakumeei laguntza eskaintzen diegu. Kanpamentuan zaudenean, zaila da zure aukerak ezagutzea eta zein urrats eman behar dituzun jakitea. Guk laguntza eta gida hori eskaintzen dugu”. (Emakumea)

“Astero joaten nintzen kanpamentura eta bertan zeudenekin hitz egiten nuen, txartelak ematen nizkien. Elkarriketa egin beharko luketen galdetzen zidaten. Beraien eskubideen alde borrokatu behar dutela esaten nien. Ez dakite zeintzuk diren beren eskubideak. Ezagutzen badituzu, haien alde borrokatzeko aukera duzu, baina ez baldin badakizu zeintzuk diren zure eskubideak, nola borrokatuko zara ezagutzen ez duzun zerbaiten alde? Gizartelangileek kanpamentuaren xedea eta bertako arauak zein diren jakinarazi beharko liekete, eta gizartea ezagutzeko pautak ere eman beharko liekete. Baina ez dute egiten. Ezer ez, klase bat ere ez diete ematen, alemaneko klase bat ere ez”. (Gizona, 36)

Asilo-eskatzaileak nazioarteko babesak lortzen duenean eta errefuxiatu-estatutua edo babes subsidiarioa dituzenean, ez du zertan harrera-zentroetan edo bizitoki kolektiboetan bizitzen jarraitu. Hala ere, eta batez ere hiri handietan, zaila da ostaldea aurkitzea eta horregatik, nazioarteko babesak duten pertsona asko ostaldu kolektiboetan gelditu behar dira denbora gehiago. Gainera, 2016 geroztik, pertsona errefuxiatuek eta babes subsidiarioa dutenek, oro har, beren asilo-prozesua gauzatu zen eskualdean bizitzen jarraitu behar dute [AIDA, 2022a].

“Bidaiatzeko eta lagunak ikusteko eskualdetik irten gaitezke, baina ezin gara joan beste eskualde batera bizitzera. 3 edo 4 urtez bertan egon behar gara. Asiloa lortzen duten pertsonak ere eskualdean gelditu behar dira 3 edo 4 urtez. Eta horren ostean mugitu daitezke”. (Gizona, 27)

Hezkuntza eta enplegurako sarbidea

“Alemanian adintxikiko pertsona guztiak eskolara joan behar dutela dioen arau bat dago”. (Gizona, 27)

Alemanian eskolara joateko obligazioak 16 edo 18 urtetik beherako haur guztiei eragiten badie ere (eskualdearen arabera), praktikan errealitatea desberdina da asilo-eskatzaileentzat. Hezkuntzarako sarbidea harrera- edo iritsiera-zentroetan bereziki problematikoa da. Izan ere, kasu askotan, zenbait GKEk salatu dutenez, haurrek ez dute eskolara joateko aukerarik zentro horietan dauden bitartean [ProAsyl, 2021].

Gaske eta helduei dagokienez, lehenengo urratsa alemana ikastea da. Migrazio- eta babes-bulegoaren (BAMF) arabera, bi ikastaro mota daude asiloa eskatzen duten pertsonentzat: integrazio-ikastaroak, errefuxiatutzat onartzeko aukera onak dituzten asilo-eskatzaileentzat (Eritreatik, Siriatik eta Somaliatik, eta 2022aren hasieratik Afganistandik datozen pertsonak), eta hasierako orientazioa, errefuxiatu gisa onartzeko aukera gutxi duten pertsonentzat [BAMF, 2023]. Hala ere, kasu askotan, asko luzatzen da ikastaro hauetara iritsi arte itxaron beharreko denbora.

“Alemaneko klaseetara sartzea ez zen azkarra izan, hemen pertsona errefuxiatu asko daudelako. Eta Ukrainako pertsona errefuxiatuak ere bertan daude. Horregatik, niretzat eta nire familiarentzat nahiko zaila da alemaneko klaseak jasotzea. Hori dela eta, YouTube-ko bideoekin hasi nintzen hizkuntza ikasten. Nire kabuz ikasten hasi nintzen eta pixka bat hitz egin nezakeen. Eta nire arazoak konpontzeko gai nintzen. Baina klaseak jasotzen hasi nintzenean, hobekuntza handia izan nuen”. (Emakumea, 18)

“Berlinen A2 edo B1 mailaraino hizkuntza ikasteko ongi-etorri klaseen sistema bat dute eta ondoren, egin nahi duzunaren arabera, eskola normal batera joaten zara. Baina lagunak kontatu zidan beste hiri batzuetan ez dagoela ongi-etorri klaserik. Zuzenean eskolara

joaten dira edo alemaneko ikastaroa egiten dute, besterik ez. Eta eskualde batzuetan ezin dituzu alemaneko klaseak jaso asiloa lortu arte, gobernuak ez ditu diruz laguntzen. Horregatik, nire laguna bi urtez egon zen hemen eta denbora horretan ezin izan zuen inongo klaserik jaso. YouTube-n ikasi behar izan zuen alemana. Aurkitzen zaren lekuaren arabera da”. (Emakumea, 26)

“Orain dela sei hilabete iritsi nintzen eta oraindik ezin izan dut alemaneko ikastaro batera joan. Oraindik itxaroten nago. Eta askotan saiatu naiz alemaneko klaseetara batzen, baina ez dut lortu. Pertsona errefuxiatu asko daudelako itxaron egin behar dudala esaten didate. Eta ez badut aleman hitz egiten, gizartetik kanpo nago eta errazagoa da gaizki sentitzea eta depresioa izatea. Oso zaila da”. (Emakumea, 22)

“Nerabe errefuxiatuak lehenengo alemaneko klasetara joan behar dira. Klase hauek bereizita daude. Behin hizkuntza ikasi dutenean, orduan ikasle alemaniarrekin batera klase normaletara joateko aukera dute”. (Gizona, 27)

“Ni joaten naizen eskolan, pertsona errefuxiatuak eta alemaniarrek elkarrekin gaude. Alemana ondo hitz egiten ez dugunez, lehenengo urtebetez gutxi gora-behera, 3 edo 4 irakaslerekin, alemana ikasi behar dugu. Eta ondoren, azterketa bat egin behar dugu ikasketekin jarraitu eta egin nahi duguna aukeratzeko: eskolara joan zaitezke, lanera joan zaitezke, unibertsitatera joateko ikasten jarraitu dezakezu... hemen aukera guztiak dituzu”. (Emakumea, 18)

Asilo-eskatzaileek lanbide-heziketara sartzeko eskubidea dute (Ausbildung alemanez). Hala ere, asilo-eskatzaileek Alemanian egoteko duten baimena 6 hilean behin berritzen da, eta lanbide-heziketak 2 edo 3 urte irauten du. Hori horrela izanda, eskaera asko ez dira onartzen, formakuntza bukatzeko aukerarik izango ez den beldurra dagoelako [AIDA, 2022a].

“Lanbide bat ikasi nahi duten pertsonak Berufsschule-ra [lanbide-heziketa eskolara] joaten dira eta unibertsitatera joan nahi duenak Avitur [selektibitatea alemanez] egin behar du. Aukeratu dezakezu, baina pertsona errefuxiatuei lanbide-heziketako eskolara joatea gomendatu eta azpimarratzen zaie. Ongi-etorri klaseetan nengoenean, irakasleak zer egin nahi nuen galdetu zidan eta nik selektibitatea egitea gustatuko litzaidakeela esan nion. Selektibitatea niretzat oso zaila zela esan zidan, eta ezin nuela egin. Orain Alemanian nagoela, eta lanbide bat ikasi behar dudala. Herrialdeari zerbait itzuli behar diodala. Ez dago profesional nahikoa, eta langileak behar dituzte. Horregatik, lanbide-heziketa eskolara joateko presioa jasan dut”. (Emakumea, 19)

“Ikasle errefuxiatuak lanerako prestatuta egon daitezen nahi dute. Alemaniak langileak behar ditu. Eta unibertsitaterako sarbidea oso zaila da, bereziki alemanez ondo hitz egiten ez duten pertsonentzat”. (Emakumea, 18)

Asiloa eskatzen duten pertsonentzat unibertsitatean ikastea baimenduta dagoen arren, praktikan zailtasun asko daude. Alemanian egoteko baimena duten asilo-eskatzaileak unibertsitatera sartzeko eskubidea dute, baina unibertsitateak ezartzen dizkieten baldintzek

sarbidea zailtzen dute: unibertsitatean sartzeko ziurtagiria, alemanaren ezagutza eta aseguruaren estaldura behar dira. Gainera, Alemanian geratzeko baimena duten asilo-eskatzaielak, ez dute Alemanian ikasleek jasotzen duten dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik [AIDA, 2022a]. Zailtasun hauek guztiek eta Alemaniak langile kualifikatuak lortzeko dituen beharrak, asilo-eskatzaielak unibertsitaterako sarbidea oztopoz beterik izatea eragiten dute.

“Alemania langileak behar dituen herrialde bat da. Horregatik zaila da unibertsitatera sartzea. Ikasleak lanera joatea nahi dute”.
(Emakumea, 18)

Enplegurako sarbideari dagokionez, oro har, harrera-zentroetan edo iritsiera-zentroetan dauden asilo-eskatzaielak ez dute lan egiteko eskubiderik. Azpimarratzekoa da asiloa eskatzen duten pertsona gehienek zentro horietan gehienez 18 hilabeteko egonaldia egin dezaketela, eta eskualde batzuetan 24 hilabetetaraino luzatu daitekeela egonaldia. Harrera- edo iritsiera-zentroetatik irten ondoren, asilo-eskatzaielak eskualdean 3 hilabete baino gehiago badaramatza, orduan lan egiteko eskubidea du. Hala ere, praktikan muga asko daude. Izan ere, asilo-eskatzaielak lan egin nahi duen bakoitzean lan-baimena eskatu behar du, eta baimena ematen zaion bakoitzean, enpresaburuak asilo-eskatzaiela enplegatua izango dela ziurtatu behar du [AIDA, 2022a].

“Kanpamentuan zaudenean ez duzu lan egiteko baimenik. Asteko 32€ jasotzen dituzu. Zenbateko hau 5 egunetarako autobus tiketak erosteko ere ez da nahikoa. Hirira joan eta kanpamentura itzultzeak 7€-ko kostua du. Ezinezkoa da ematen dizuten janaria jatea, beraz janaria erosi behar duzu. Erretzen duzu, edaten duzu, arropa behar duzu, internet behar duzu, abokatuari ordaindu behar diozu. 32€-rekin? Nola.”
(Gizona, 36)

“Kanpamentuan zaudenean ez duzu lan egiteko baimenik, ezta kanpoan ikasteko ere, eta ez duzu aseguruirik. Kanpamentutik atera ondoren, bi hilabete itxaron behar izan nituen lan egiteko baimena lortu nuen arte. Bi hilabeteko borroka”. (Gizona, 36)

“Ni ingeleseko irakaslea naiz. 4 urte daramatzat Alemanian eta ezin dut irakasle gisa lan egin. DHL-n, Amazon-en, auto konpainietan... egin behar dut lan. Eskulana behar dutelako egin dezakezu lan enpresa hauetan. Esklabutzaren bertsio berri bat da. BMW enpresan lanean egon nintzenean, ez zegoen Alemaniako pertsonarik bertan lanean. Erdia pertsona errefuxiatuak ginen eta beste erdia Txekiar Errepublikatik edo Poloniatik zetorren. Zergatik? Alemanek sekula ez luketelako orduko 10-12€-ren truke lan egingo”. (Gizona, 36)

“Eta 5 urtez BMW enpresan lan egin ondoren, deportatu egin nahi ninduten. Lan merkatuan sartzen zaituzte, eta 5 urte eta gero deportatu egiten zaituzte. Esklabutzaren bertsio berri bat da”. (Gizona, 36)

Alemanian asilo-eskatzaille gisa erronka eta zailtasunak

Elkarrizketatutako asilo-eskatzailleek deskribatzen duten erronketako bat Alemaniako gizartean sartu, eta berriro hasieratik hasi beharra da.

“Zerotik hasi behar duzu, herrialde berri batean zaudelako, hizkuntza ezagutzen ez duzulako, lanik ez duzulako, dirurik ez duzulako... eta inor ezagutzen ez baduzu, bakarrik bazaude, oraindik okerragoa izan daiteke. Erronka asko dituzu zure aurrean”. (Gizona, 27)

“Hemen zure buruarekin zaude. Zaila da Alemaniako jendearekin erlazionatzea. Laguntzen zaituzte, baina beraiekin gertuko harreman bat hastea zaila da”. (Emakumea, 18)

“Hona iritsi nintzenean erronka handiena hegan ari nintzela izan zen. Zeruan nengoen, oinak lurtean eduki gabe. Astebete eman nuen negarrez eta pozik. Hemen nengoen, nire familiatik gertu. Zoragarria zen. Non nengoen eta zer egin behar nuen ulertzeko denbora behar nuen soilik. Nire burua hutsik zegoen. Nire helburu nagusia Alemaniara iristea zen, eta horren ondoren, ez nuen planik. Zer egin behar nuen, zein izango zen nire hurrengo pausua. Niretzat oso zaila izan zen. Ni neu izan nintzen erronka handiena”. (Emakumea, 26)

“Grezian zaila da, Alemanian zaila da. Greziara iritsi nintzenean, ez zegoen itxaropen handirik Moria kanpamentuan, baina aktibo mantendu nintzen. Atenasen ere berdin. Eta ez nuen Alemaniara etortzerik nahi. Antzerki talde baten parte nintzen, eta migratzeko nire proiektuak bertan behera utzi behar izatea ez zen berria niretzat. Lehenago ere gertatu izan zait hau nere bizitzan. Baina oraingoan emanaldia oso gertu zegoen eta parte hartu nahi nuen. Baina nire gurasoek Alemaniara etorri nahi zuten. Momentu batean berriro hasiko nintzela pentsatu nuen. Alemaniara

etorri naiz, hizkuntza ikasiko dut, horrela bertako pertsonekin harremanetan egoteko aukera izango dut, eta ateak irekiko dira. Itxaropentsu nago”. (Emakumea, 22)

“Hemen bizitza dagoeneko erronka bat da. Unibertsitate sartzeko erronka handia da niretzat. Beti pentsatzen dut gai izango ote naizen ala ez. Ez nago ziur. Lan egitea ere erronka bat da niretzat”. (Emakumea, 18)

“Orokorrean dena oso zaila da. Hizkuntza ikastea, asiloa lortzea”. (Gizona, 27)

Elkarbizitza

“Alemaniarrei bost axola zaie guk ditugun zailtasunak. Edo ez dituzte guk ditugun zailtasunak ezagutu nahi. Agian beraiek bezala bizi garela pentsatzen dute, edo ez ditugula erronkarik”. (Emakumea, 22)

“Alemaniako biztanleriak ez ditu ezagutzen pertsona errefuxiatuentzat dauden arau guzti hauek. Asilo prozesuan jarraitu behar ditugun pausuak ez dituzte ezagutzen”. (Gizona, 27)

Herrialde berri batera iritsi eta hutsetik hasteak ekarri ditzakeen beldur eta zailtasunei, asilo-prozesuaren ebazpenari buruzko ziurgabetasuna gehitu behar zaio. Asiloa ez onartzeko beldurra eta deportazioa, Alemaniara nazioarteko babesaren bila iristen direnentzat beste zailtasun batzuk dira.

“Erronka handiena asiloa ematea da. Asiloa ematen badizute, errazagoa izango da. Izan ere, lanbide-heziketan sartu nahi duzun ala ez, nola bizi nahi duzun, non bizi nahi duzun eta beste hainbat gauza hautatzeko aukera izango duzu. Baina arazoa, asiloa ematea ez dela hain erraza da”. (Gizona, 27)

“Hona iritsi zirela, oso zaila izan zela eta beren buruaz beste egin zutela entzun dut. Agian kanpamentuan egoteaz eta inongo agiririk ez jasotzeaz nekatu egin zirelako”. (Emakumea, 22)

“Zure asilo-eskaera ukatua izan bada, dena zailagoa bihurtzen da. Pertsona heldua zarenez, ezin zara eskolara joan, eta oso zaila da hizkuntza ikastea. Alemaneko ikastaroak daude, baina horietan sartzea zaila da. Ikastarora ezin bazara sartu, ez duzu hizkuntza ikasten. Hizkuntza ez badakizu, ezin zara lanbide-heziketara sartu. Dena okerrera doa”. (Gizona, 27)

“Heim-ean [ostatu kolektiboan] bizi naizen emakume bat naiz. Ezkonduta nago, lan egiten dut eta zergak ordaintzen ditut. Eta ni bezala, lan egiten duen eta zergak ordaintzen dituen pertsona asko dago, edo lanbide-heziketa egiten ari dena ere bai, eta hala ere, deportatu egin dituztenak. Keniara zioan hegazkin oso bat deportatu zuten. Eta honek asko desegonkortzen du. Era berean, seguru ez gaudela esaten digute, baina integratzen saiatzen garenean ere, gizartearen parte izateko independente izaten saiatzen garenean”. (Emakumea)

Dublingo Hitzarmenari aurre egitea ere asiloa eskatzen duten pertsonen duten zailtasun gehigarri bat da.

Dublingo Hitzarmena

Dublingo Hitzarmenak Europako lurretan aurkitzen den pertsona batek asiloa eskatzen duenean, asilo-eskaera hau aztertzeaz eta tramitatzeaz arduratu beharko litzatekeen herrialdea zein izango den erabakitzeak irizpideak ezartzen ditu. Asilo-eskaeraren ardura zein herrialdek hartu behar duen zehazten duten irizpideen artean, besteak beste, honakoak hartzen dira kontutan: asilo-eskatzaileak herrialdearekin dituen familia- edo kultura-loturak, edo estatu kide batean bisatua edo bizileku-baimena izatea. Era berean, beste irizpide erabakigarri bat asilo-eskatzailea Europar Batasunera sartu den herrialdean datza. Eta, hain zuzen ere, Dublingo Hitzarmenean azken irizpide hau erabiltzen da gehien. Irizpide honek, asilo-eskatzaileak Europar Batasunera lehenengo sartu ziren herrialdera deportatzea ahalbidetzen du [ACNUR, 2018]. Elkarrizketatutako pertsona gehienek kasuan, Grezia izan zen Europara sartzeko herrialdea.

“Grezian asiloa eman izanak, zure Alemaniako egoeran eragin handia du. Hemen asiloa lortzeko aukerak gutxitu egiten dira. Berriz asiloa lortzea ia ezinezkoa da. Bertan gelditu nahi duten pertsonak, lanbide-heziketa baliatzen du lan bat aurkitzeko. Dublin kasuak beste kontu bat gehiago dira. Alemania Europa erdialdean dago eta argi dago bertara iristeko Europako beste herrialde batzuk igaro behar dituzula. Beraz, hemen zaudenean, gehienetan Dublin kasu bat zara. Eta Dublin kasua duten pertsonen beste erronka bat dute. Berriz asiloa eskatu ahal izateko hilabete batzuk, 9 edo 18 hilabete izan daitezke, itxaron behar dute. Denbora tarte honetan, ilegala izango bazina bezala da eta deportatzeko arriskua duzu. Eta Europara sartu zinen herrialdera deportatzen zaituzte”. (Gizona, 27)

Armen ekoizpena eta Alemaniaren erantzukizuna

“Badirudi Irakeko Kurdistanen ez dagoela arazorik. Hemen ez dakite han zer ari den gertatzen. Ni orain dela 9 urtetatik leku seguru baten bila nabil: 3 urtez Turkian, 4 urtez Grezian eta orain Alemanian nago. Eta Greziara deportatu nahi didate, pasaporte eta hatz-markak han ditudalako”. (Gizona, 23)

Asilo-prozesuak berak dituen zailtasunez gain, asilo-eskatzaile eta errefuxiatuek Alemaniako gizartearen erreakzio eta jarrera arrazistak ere jasan behar dituzte. Hauek ere zeharkatu beharreko zailtasunak dira.

“Niretzat arrazakeria da erronka handiena. Minbizi bat da”. (Gizona, 36)

“Pertsona errefuxiatuak gustatzen ez zaizkien pertsona alemaniarrek badaude. Ez gaituzte onartu nahi. Ez dute ezer egiten gure aurka, beste herrialde batekoak garelako ezin gaituztela onartu soilik esaten dute. Zergatik partekatu behar duten guztia gurekin galdetzen dira”. (Emakumea, 18)

“Alemaniako jendea nekatuta dago pertsona errefuxiatuekin, azken urteotan errefuxiatu asko etorri direlako Europara eta, batez ere, Alemaniara. Baina, badakizue?

Bertako herritarrek ez dakite pertsona errefuxiatuentzako egoera hau gobernuek sortutakoa dela. Alemania munduan arma gehien ekoizten dituen herrialdeen artean dago. Arma hauek gerrak egiteko bidaltzen ari dira. Batez ere Asiako herrialdeetan eta Afrikan ari dira negozioak egiten. Eta jendeak, gerra hauengatik, bere herrialdetik ihes egin behar du, bestela hil egingo dituztelako. Beraz, egoera hau sortzen duzu, baina gero ez dituzu errefuxiatuak onartzen, eta beraiek direla beren egoeraren erantzuleak uste duzu. Eta ez dute erantzukizun hori beren gain hartzen. Hau guztia hemengo jendeak ez daki. Baina gobernuek hala egiten dute”. (Gizona, 27)

Bestalde, familia osatzen duten komunitatean bertan, norberak bere tokia berriz aurkitzea ere erronka bat izaten da. Batez ere, emakumeentzat. Kasu askotan emakumeak dira bere familiaren zaintzaren ardura hartzen dutenak.

“Aurre egin behar diodan erronka bat, familiarekiko dudaren erantzukizuna da. Alemana ikasten ari naiz eta nire familiak baino gehixeago dakit. Nora joan behar duten edo zer egin behar duten esan behar diet. Eta gai honekin zailtasunak izaten ari naiz. Nire familiarentzako eta nire buruarentzako puntu egokia aurkitu behar dut”. (Emakumea, 19)

“Nire familiaren arduraduna naiz eta horregatik ikasi behar dut aleman hizkuntza azkar. Zaharrena naiz eta nire anai-arreba eta familia osoak nigandik zerbait espero dute. Hau nire ardura da, lagundu egin behar diet”. (Emakumea, 18)

Eta emakume bezala erronka espezifikoak?

Elkarrizketatutako emakume afganiarrak Europan emakume gisa bizi duten desberdintasun kulturalak aipatzen dituzte. Batez ere, jatorrizko herrialdearekin (Afganistan) edo jaio eta hazi diren herrialdearekin (Iran) alderatuta.

“Alemaniako gizartean norbanako bezala berriz aurkitu behar duzu zure burua. Nola definitzen duzun zeure burua, edo nolakoa uste duzun zarela eta nola ikusten zaituzten pertsona bezala. Eta etorkizunean zer egin nahi duzun. Eta integrazioa, gizarteratzea, batez ere emakume gisa. Asko aldatzen gara. Emakume musulman, afganiar eta errefuxiatu gisa, asko aldatu gara. Orain dela urtebetetik ez daramagu hijab-a eta dena jartzen dugu zalantzan”. (Emakumea, 19)

Irango eta Afganistango emakumeek janzkera-kode espezifiko bat eramateko obligazioa dute. Betebehar honek bere arrasto eta ondorioak uzten ditu, baita migratu ondoren ere. Gizartearen eta familiaren aldetik jasaten duten presioaren eragina ere agerikoa da.

“Nire familian hijab-a kentzen azkena izan nintzen. Oso zaila izan zen. Nire familiako zaharrena naiz, eta familiari lagundu eta babestu behar diodanez, beldur nintzen hijab-a kenduz gero, gainerakoek nire bideari jarraituko ote zioten. Baina azkenean nire aurretik egin zuten. Neure buruarekin borroka handia izan nuen. Zer gertatuko zen nirekin kentzen banuen? Zeruak kezkatzen ninduen, infernuak, infernura joango nintzen. Eta, bestalde, erantzukizun handia sentitzen nuen Irango eta Afganistango nire familiarekiko. Haiek eskatu zidatelako, ahizpa nagusi gisa, familia zaintzeko. Influentzia txar bat ez izateko”. (Emakumea, 26)

“Hijab-aren gaiak emakumeei soilik eragiten die. Gizonengan ez du inongo eraginik. Nola janzten zaren zure lehenengo kezka da. Eta gizonek ez dute presio hau. Gehienetan ez dira ezta galdetzen. Musulmanak dira, baina alkohola edaten dute, erre egiten dute, harreman sexualak dituzte. Eta beraientzat normala da. Baina emakume bezala, egiten duzun mugimendu bakoitza onartu edo ukatu egin behar duzu. Eta honek identitate krisi handia sortarazten du. Askoz ere krisi handiagoa emakumeengan, gizonengan baino”.
(Emakumea, 19)



Era berean, zalantzan jartzen dute Europan ziurtzat jotzen den gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta gizarte patriarkala kritikatzeko dute.

“Emakume afganiar bezala, emakume musulman gisa, Alemaniara iristen zarenean, gizartetik zerbait sentitu dezakezu. Ezkutuan dago, baina sentitu egiten duzu. Europan zaudela esaten dizute, askatasuna duzula, nahi duzuna egin dezakezula. Baina ez da horrela”. (Emakumea, 22)

“Emakume gisa, ozeanoan tanta bat bezala zara. Ezin zaituzte sentitu, ezin zaituzte ulertu, ezin zaituzte ikusi. Europa delako, berdintasuna dagoela esaten dute. Baina niretzat ez da horrela. Niretzat ez dago berdintasunik, ez da nahikoa”. (Emakumea, 22)

“Emakume bezala, gure esperientziak ezberdinak dira. Ongi-etorri klaseetan bi emakume baino ez ginen, gainontzekoak gizonezkoak ziren. Barre egiten ziguten, bullying-a egiten ziguten. Gizartean barneratuta dago eta askotan zaila da identifikatzea”. (Emakumea, 19)

“Alemanian gaude eta gure pentsatzeko modua aldatu egin behar dugu. Baina Afganistango pertsona errefuxiatu gehiengoak ez du egiten, Afganistanen bezala pentsatzen jarraitzen dute. Ez dute ezer aldatzen. Eta horregatik emakumeen eskubideen alde, askatasunaren alde borrokatzen dut”. (Emakumea, 18)

Emakume izate hutsagatik, emakumeek hainbat zailtasunei egin behar diete aurre. Hala ere, emakume batzuek, emakume afganiarrak izanda Europako herrialde batean egoteagatik, itxaropen-hitzak helarazi dituzte.

“Alemaniara iritsi nintzenean, oso sentsazio indartsua izan nuen: Afganistango emakume bat naiz, baina orain Alemanian nago. Orain beste egoera batean nago. Hemen askatasun gehiago dut. Zer egin dezakedan erabaki dezaket. Zein aktiboa izan naitekeen jabetu naiz. Eta nire etorkizunean pentsatzen dudanean, gauza asko egin ditzazkedala sentitzen dut; Afganistan edo Iranen emakumeek egin ezin dituzten hainbat gauza. Hemen emakumea izatearen sentsazio ona dut. Emakumea naiz eta hemen nago”. (Emakumea, 18)

2

FRANTZIA

Testuinguru orokorra: asilo eskaerak eta ostatua

2022an Frantzia asilo-eskatzaileak azken geltoki gisa aukeratutako Europako bigarren herrialdea izan zen, Alemaniaren ondoren, Europar Batasunean egindako eskaeren %015,6rekin, hain zuzen ere [Eurostat, 2023]. 2022an 156.455 pertsonak eskatu zuten nazioarteko babesa Frantzian. Ebatzitako eskaeren artean, %072,6 ukatuak izan ziren eta %022,6k errefuxiatu-estatutua lortu zuten. Nabarmentzekoa da 2022. urtearen amaieran, 142.940 asilo-eskaera oraindik ebatzi gabe zeudela [AIDA, 2022b].

2022an Frantzian asiloa eskatu zuten pertsonen jatorrizko herrialde nagusia Afganistan izan zen, eta ondoren Turkia, Bangladesh, Georgia eta Kongoko Errepublika Demokratikoa. Frantzian elkarrizketatutako pertsonen gehiengoa afganiarrak izan direla kontutan hartuta, aipatzekoa da 2022an 23.755 pertsona afganiarrek eskatu zutela asiloa Frantzian. 2022an ebatzi ziren eskaeretatik, 11.585 pertsonak errefuxiatu-estatutua lortu zuten eta 5.235 eskaera ukatuak izan ziren.

	Eskaerak 2022an	2022 amaieran ebatzi gabe	Errefuxiatu-estatutua	Babes subsidiarioa	Ukatutako eskaerak
Guztira	156.455	142.940	29.305	6.235	94.195
%			%022,6	%04,8	%072,6
Afganistan	23.755	23.605	11.585	75	5.235
%			%68,6	%0,4	%31,0

Krisi klimatikoa, errefuxiatu klimatikoak eta armen industria

“Armen ekoizpena eta gerraren finantzaketa gelditu behar ditugu. Eta gure energia krisi ekologikora bideratu behar dugu. Krisi ekologikoa mundu mailan arazo larria izaten ari da eta hainbat pertsona errefuxiatu klimatiko eragin ditu. Eta ez gaude prest pertsona hauek guztiak jasotzeko. 2023an gaude eta kapitalismoak gerra egin eta hau finantzatu du. Eta berriz ere sisteman injektatzen duen dirua egiten ari da. Onurak jasotzen dituzten pertsonak sistemaren zerbitzariak dira. Eta dirua lortu nahi duten guztiak gerraren parte dira. Baina guztiok hartzen dugu parte honetan. Dirua armen industrietatik datorrelako. [...] Eta noiz ateratzen gara armen industriaren aurka protesta egitera? Inoiz. Baina pertsona errefuxiatuen krisiarekin erlazionatuta, beti daude protestak, pertsona errefuxiatuak onartzen ez dituztelako. Baina Europak ez balu armarik salduko, eta ez balitu gerrak babestuko, ez lirateke horrenbeste pertsona errefuxiatu egongo. Eta gai honekin gaur hasi behar dugula uste dut. Armen ekoizpenaren aurka eta gerrak hastearen aurka mobilizatzen hasi behar dugu. Eta mundua errefuxiatu klimatikoak jasotzeko prestatzen eta komunikatzen hasi beharko ginatke. Gaur hasi behar gara pertsona hauei guztiei ongi-etorria egiteko prestatzen, kutsadura eta krisi ekologikoa gure hondamendia direlako”.

(Emakumea, 38)

“Frantziara etortzeko modu desberdinak daude. Malitik Gabonera hegazkinez joan ginen, baita Gabonetik Turkiara ere. Turkiatik Greziara ontzi bidez joan ginen eta Greziatik Italiara hegazkinez. Azkenik, Italiatik Frantziara autobusez etorri ginen”.

(Gizona, 24)

“Afganistandik Frantziarako nire bidaiak ia 23 urte iraun zituen. Afganistandik Pakistanera, Iranera, Turkiara, Greziara, Espainiara eta Frantziara”. (Gizona, 25)

2018tik aurrera, Frantzia eta Espainiaren arteko muga Frantziara sartzeko bide nagusian bilakatu da [AIDA, 2022b]. Bi herrialde hauen arteko mugetako bat Euskal Herrian kokatzen da, eta ageriko harresirik ez dagoen arren, Irun eta Hendaia banatzen dituen mugan polizia-kontrolak egiten zaizkie pertsona beltz eta arabiarrei. 2015etik, Frantziar estatuak, alerta terroristaren aitzakiarekin, herrialdeko barne mugak kontrolatu ditu berriro, eta arraza-kontrollean oinarritutako itzulketa sistematikoak burutu ditu. Mugako kontrolak eta horren ondoriozko itzulketek, gero eta bide arriskutsuagoak bilatzea ekarri dute. 2021ean eta 2022an, gutxienez bederatzi pertsona hil ziren muga hori zeharkatu eta Frantziara jarraitzeko egindako saiakeran [SOS Arrazakeria Gipuzkoa, 2023].

Europara iristea

“Europara iristea zaila da. Kanpotik denak oso polita dirudi, baina zure begi propioekin ikusten duzunean, oso desberdina da. Eta horretarako prest ez baldin bazaude, arazo bat izango duzu. Hori da niri gertatu zitzaidana eta pertsona errefuxiatuen %90ari gertatzen zaiona. [...] Sinestezina da. Inork ez du imaginatzen bere herrialdetik ihes egitea, heriotzera iristeko. Pertsona batzuek itsasoa zeharkatzea oso zaila dela esaten dute [Turkiatik Greziara, Europara sartzeko bere herrialdea], baina hasiera besterik ez da. Inor ez dago prest egunero bere begien aurrean heriotza ikusteko [Greziako kanpamentuetan]”. (Gizona, 25)

Nazioarteko babesa bilatzen ari den pertsona Frantzian dagoenean, asilo-eskatzaille gisa erregistratu behar da. Legeak asilo-eskatzaille gisa erregistratzeko hitzorduak gehienez 3 lanegunetan eman behar direla ezartzen badu ere, praktikan atzerapen asko daude. Batez ere, Pariseko eskualdean. Bertan hitzorduak telefonoz ematen dira, eta GKE batzuek salatu dutenez, telefona gainezka egoten da. Ondorioz, batez beste, erregistratzeko prozedurak hilabete bat baino gehiago behar izaten du [LDH, 2019]. Honek eragin negatiboa du ostatua jasotzeko aukerei dagokionez, eta baita asilo-prozesua bera ebazteko orduan ere. Asiloa eskatu nahi duten pertsonak asilo-eskatzaille gisa erregistratu behar dira herrialdean sartu eta 90 egun igaro aurretik. Hala egiten ez badute, beraien kasua “bide azkarra”-ren bitartez aztertuko da eta bide honek asiloa emateko orduan aurreikuspen okerragoak ditu [Gisti, 2021].

Asilo-eskatzaille gisa erregistratu ondoren, Frantziako agintariak 6 hilabete epea dute erabaki bat hartzeko, baina epe hori 9 hilabete gehiago luzatzeko aukera dute [AIDA, 2022b].

“Nire kasuak 9 hilabete behar izan zituen. Ez da normalena, baina nire kasuan akats bat egon zen. Normalean azkarragoa izaten da. 6 edo 7 hilabete behar dira. Zure kasuaren arabera da, zure egoera eta jatorrizko herrialdea ere kontutan hartzen dira. Tamalez, gaur egungo Afganistango egoera dela eta, pertsona afganiarrentzat zertxobait azkarragoa izaten ari da”. (Gizona, 25)

Kasu batzuetan asilo-eskaerak ez dira berrikusten, asiloa eskatzen duen pertsona Dublin kasu batekin lotzen delako, eta orduan asilo-eskaera Europar Batasuneko zein herrialdek aztertu behar duen zehaztu behar da [Gisti, 2021].

“Frantziara iritsi ginenean, erregistro-bulegora joan ginen eta gure kasuarekin arazo bat zegoela ikusi zuten. Ziurrenik gure hatz-markak Grezian genituelako izango zen. Horregatik, ez dugu inolako laguntzarik jasotzen Frantzian, ez ostaturik, ezta dirurik ere”. (Emakumea, 16)

“6 hilabetez kalean bizi behar izan ginen. Hilabete oso bat eman genuen kalean, eta hurrengo 5 hilabetetan lo egiteko toki bat bilatu genuen. Oso zikina eta baldinza oso txarretan zegoen toki bat zen, eta beste familia batekin partekatu behar genuen. Kasu honetan, familia afrikar batekin. Goizeko 6:00etan toki hau utzi behar genuen eta berriro geunden kalean. Zer egin behar genuen galdetzera joaten ginen hainbat eta hainbat lekutara. Hotza eta euriarekin, are zailagoa da”. (Emakumea, 16)

Ostatua ez izatea ez dago soilik Dublin kasuei lotuta. Asilo-eskatzaille gisa erregistratzeko dauden atzerapenek ere, Frantziar estatuak eskeini beharko lukeen ostatua eskuratzea eragozten dute. Gainera, dagoeneko asilo-eskatzaille gisa erregistratuta dauden pertsonak ere, ostatua lortzeko atzerapenak jasaten dituzte. Hori dela eta, erregistratutako hainbat pertsona ere kalean bizitzera behartuta daude.

“Orain dela 5 hilabete erregistratu nintzen asilo-eskatzaille gisa eta oraindik ez daukat bizitzeko toki bat. Horregatik, elkarrekin bizitzeko norbait aurkitzea erabaki nuen. Nire lagunari esker bizitzeko toki bat dut [bere lagunaren etxean bizi da], bestela zubi azpian egongo nintzateke. Normalean, Parisen egon behar duzu, zubi azpian, hilabete batez edo bi hilabetez. Parisera joan nintzenean, zubi azpian bizi ziren pertsona asko ezagutu nituen, eta beraien egoerari buruz galdetu nien. Oso egoera txarrean bizi dira”. (Gizona, 28)

“Nire alaba eta ni beste bi emakume eta beraien seme-alabekin batera bizi gara etxe batean. Afrikako herrialde ezberdinetatik datoz, eta etxe berean beste bi familiarekin batera elkarbizitza zaila da. Frantziara iritsi nintzenean, bi hilabetez itxaron behar izan nuen niretzat ostatu bat lortu arte. Denbora horretan nire anaiaren etxean egon nintzen, baina nire anaia hemen egongo ez balitz, kalean egin beharko genuke lo edo parkean, kanpin-ere”. (Emakumea, 16)

denda batean. Eta ez du axola emakumea edo gizona zaren, edo zure herritartasuna zein den. Bizitzeko toki bat bilatzen dizuten arte, kalean bizi behar duzu”. (Emakumea, 24)

Frantziako agintariek asilo-eskatzailerei harrera-zentroetan ostatua eskeintzeko obligazioa dute. Leku nahikoa ez badago, larrialdietarako ostatua eskeini behar dute eta horretarako telefono zenbaki batera deitu behar da [Gisti, 2021]. Baina larrialdietarako ostatuak eta telefonoak ere gainezka daude. Egunean 1000 dei inguru ez dira erantzuten [Infomigrants, 2022].

“Lyonen jende asko bizi da kalean. Gizon afrikar bat ikusi nuen eta berarekin hitz egin nuen. Denboraldi bat Parisen egon zela esan zidan, eta Lyonera etortzea erabaki zuela, bertan bizitzeko toki bat aurkitzeko itxaropenarekin. Ordurarte, 20 egun zeramatzan kalean, ezin izan zuen tokirik aurkitu. Eta bai, jende asko dago egoera honetan. Gauero deitzen dute lo egiteko tokirik dagoen galdetzeko, baina ezetz esaten diete, dena beteta dagoela”. (Gizona, 28)

Agintariek asiloa eskatzen duten pertsonen ostatua ematen dietenean, honek ez du zertan asiloa eskatu zen eskualde berean egon behar. Gainera, asilo-eskatzaila emandako ostatuan egon behar da hurrengo bost egunetan. Hala egiten ez badu, eskaintza errefusatutzat joko da eta ez du beste edozein ostatu lortzeko aukerarik izango. Barne Ministerioaren datuen arabera, 2022. urtearen amaieran, asilo-eskatzaille gisa erregistratutako 142.940 pertsonetatik, 62.000 soilik aurkitzen ziren ostatu hartuta [AIDA, 2022b].

“Normalean asilo prozesuan izena ematen duzunean ostatua eskatzeko aukera duzu. Baina ez dakizu ostatua noiz emango dizuten.

Agian 2 hilabetetan, edo 5 hilabetetan... eta bitartean, kale gorrian bizi behar duzu. Ostatua lortzen duzunean, herri txiki batera edo edozein lekutara bidalia izateko aukera duzu, eta onartu eta isildu besterik ez duzu. Ostatua izango duzu, baina nolakoa?

Adibidez, 5 pertsonentzat logela txiki bat. Eta denbora batez bertan egon beharra duzu.

Asiloa lortzen baduzu, zure egoera arinki hobetu daiteke. Baina dena den, Frantziako arazo handienetariko bat ostaturako sarbidea da. Etxe asko hutsik daude, baina ez guretzat. Gobernuak pertsona errefuxiatu ukrainarrak hartzeko familia frantsesei ordaindu egiten diote. Baina emakume afrikar bati harrera egin nahi badiozu, gaizki begiratzen zaituzte. Arrazakeria sakonki dago ezarrita gobernuan”. (Gizona, 25)

“Nire lagun bat bizi naizen hiritik bi kilometrotara dagoen kanpamentu batean egon zen. Egun batean kanpamentua ikustera joan nintzen eta sukaldea intsektuz beteta zegoen. Egongela ere bai. Oso zikina zegoen eta herrialde desberdinetako jende asko zegoen. Kanpamentuan logela txiki bat duzu zuretzat eta komuna eta dutxa partekatu egin behar dituzu”. (Gizona, 28)

Asiloa eskatzen duten pertsonentzat ostatua lortzeko aukerak eta prozesua zailak dira. Pertsona batzuk, Frantziara migratu eta bertan asilo prozesuan ez sartzea erabakitzen dute. Pertsona hauentzat Frantzian bizitzea are zailagoa bilakatzen da.

Hezkuntzarako sarbi- dea

“Ez dut uste asiloa eskatuko dudanik. Malitik datozen pertsonen gehiengoak ez du asiloa eskatzen, ez dietelako ematen. Horregatik ez dut asiloa eskatu nahi [...] Asiloa eskatzera zoazenean, Malin gerrarik ez dagoela esango dizute. Ez dakit zer egin dokumentuak lortzeko [...] Lan bat aurkitu nahi dut eta nire dokumentuak lortu nahi ditut. Poliziarekin kontuz ibili behar naiz, garraioarekin, guztiarekin. Ezin dut bizitza normala egin, nire egoera ez delako normala”. (Gizona, 24)

Itxaropen zapuztuak

“Frantziara iristen zarenean aurkitzen zaren egoerak, Frantziara inoiz etorri ez izana desiratzea eragiten dizu. Kanean bukatzen duzu, 0, -2, -3 graduko tenperaturekin. Urte batean, kanean bizi diren 500 nerabe baino gehiagori irakatsi diet. 13 urte dituzten nerabeak. Zergatik egin behar dute lo kanean?”. (Gizona, 25)

“Hemen aurkitzen ez direnei, ez etortzeko esango nieke, beste leku bat bilatzeko. 2 urte baino gehiago behar izan nituen Frantziara iristeko, beraz hemen zerbait bilatzen saiatuko naiz. Baina hemen egongo ez banintz, eta errealitate hau aurrez ezagutzeko aukera izan banu, inoiz ez nintzateke etorriko”. (Gizona, 24)

“Frantzia paradisu bat izango zela pentsatzen nuen: bakea, bizitza normal bat, eskolara joatea, bizitzeko toki bat izatea. Baina etorri ginenean, ez zen guk imajinatu genuen bezalakoa izan”. (Emakumea, 16)

Frantzian, 6 eta 16 urte bitarteko haur guztiak eskolara joatea behartuta daude. Dena den, praktikan, asilo-eskatzaileek hezkuntzan sartzeko zailtasunak dituzte, muga asko daude. Eskola batzuk haurrek izena eman ahal izateko, hauek helbide bat izatea eskatzen dute, eta eskaera hau helbide pertsonalik ez duten asilo-eskatzaileentzat arazo batean bilakatzen da. Frantsez hizkuntzako kurtso espezifikorik ez izatea ere, beste oztopo bat da eta honek ikasketa prozesua bera zaildu egiten du [AIDA, 2022b].

“Orain dela hilabete batetik, kontainer batean bizi gara. Baina oraindik ez dugu inongo dirulaguntzarik jasotzen. Eta duela 2 hilabetetatik, eskolara joaten naiz. Mundu guztiak frantsesez hitz egiten duen eskola misto bat da. Frantzian hezkuntzarako eskubidea dago. Bizitzeko toki bat ez dugun arren, ikasteko aukera dugu. Ni eta nire anai-arreba guztiak eskolara joaten gara. Baina hemen, Frantzian, irakaslegoa ez da arduratzen klaseak jarraitzen dituzun ala ez. Orain lagun frantses bat daukat klasean. Ingelesez hitz egiten du eta berak laguntzen dit”. (Emakumea, 16)

“Frantzian ez dago hizkuntza ikasteko eskaintzarik. Eta frantsesa ikastera joan zaitezken erakunderik ere ez dut ezagutzen. Eta hau oso garrantzitsua da, eskeini egin beharko lukete. Asiloa ematen badidate eta frantsesez hitz egiten badut, nire bidea aurkitzeko aukera izango dut. Baina ez badut frantsesez hitz egiten, ezinezkoa zait nire bidea aurkitzea eta hau oso kaltegarria izan daiteke pertsona errefuxiatuentzat”. (Gizona, 28)

Frantzian erbesteratu-tako pertsonen erronka eta zailtasunak

Frantzian asiloa eskatu duten pertsona, errefuxiatu eta migratzaileek aurre egin behar dioten erronka handienetako bat, ostatua edo etxebizitza eskuratzea da.

“Ostatua da erronkarik handiena”. (Gizona, 25)

Etxebizitzarik ez izateak ezinbestean osasunari eragiten dio. Kalean edo egoera oso txarretan bizi diren pertsonen osasuna kaltetu egiten da. Gainera, ostaturik ez izateak ezegonkortasun handia sortzen du eta honek lan bat aurkitzeko aukeran ere eragina du.

“Nire ahizpa txikia oso gaixorik egon zen. 11 egunez ospitalean egon zen. Aurretik behin baino gehiagotan joan ginen medikuarengana, baina ez ziguten jaramonik egin. Janari freskoa, atsedena eta ondo lo egitea besterik ez zituela behar esaten ziguten. Baina gure baldintzetan hau ezinezkoa zen [kalean 6 hilabetez bizitzen]”. (Emakumea, 16)

“Badakit nahi izanez gero, gauza asko egiteko gai naizela, baina erronka handienak lana aurkitu eta laguntzaren bat lortzen saiatzea dira. Geratzen ari garen tokia, Afrikako beste herrialde batetik datozen pertsonen etxe handi bat da. Lanera doazenean, bertan lo egiteko aukera dugu. Baina ez badira joaten, kalean egon behar dugu. Zail samarra da”. (Gizona, 24)

Ostatu edo etxebizitza bat lortzeko zailtasunez gain, asilo prozesuarekin erlazionatutako oztopoak eta erantzuna lortzeko behar den denbora ere hor daude. Ziurgabetasunak etorkizuneko proiektzioak egitea zailtzen du.

“Etxe bat ez izatea eta zure lagunaren etxean bizi behar izatea oso zaila da. Eta uneoro nire asilo-prozesuan pentsatzen nago, etorkizunean non egongo naizen edo zer gertatuko zaidan jakin gabe. [...] Lehenengo, onartu egin behar naute, eta gero, lan bat aurkitu eta nire bizitza egiteko aukera izango dut”. (Gizona, 28)

Arrazakeria gizartearen berezko arazo bat izanda, Frantzian bizikidetzaren gehiago oztopatzen duen arazo bat dela esan daiteke.

“Parisen arrazakeria dago. Baina zoritxarrez, Paristik kanpo, beste eskualde batzuetan, arrazakeria gehiago dago. Jendea telebistaren aurrean egoten da eta entzuten duten bakarra, migrazioaren aurka dagoen gobernuaren komunikabideak dira. Entzun eta sinetsi egiten diete. Eta honek migratzaileen aurka egotea eragiten du”. (Gizona, 25)

Mezuak

“Balikete zuretzat zure herrialdean horrenbeste jende ikustea zaila izatea. Baina inor ez da bere familia atzean utzi, bere etxetik ihes egin, bere bizitzatik ihes egin eta hona norbaiti molestatzera etortzeko bezain inozoa. Hiltzea nahi gaituztelako, beste aukerarik ez dugulako, behartuta gaude ihes egitera. Eta ikasteko gaude hemen. Gure bihotzak zabalik etorri gara, zuekin guztiekin ikasteko, lagunak izateko, eta elkarrekin bizi ahal izateko. Norbait laguntzerik ez baduzu, gutxienez ez eragin sufrimendu gehiago. Pertsona errefuxiatu baten sufrimendua ezin baduzu ulertu, gutxienez, ez iezaiozu sufrimendu gehiago eragin. Ikusten badituzu, pentsatu pasatu behar izan duten guztia. Urte askotako sufrimendua dute gainean”. (Gizona, 25)

“Saiatu besteak bizitzen ari direna ezagutzen, besteen zailtasunak zeintzuk diren ezagutzen. Pertsona ona eta txarrak munduko leku guztietan aurkitu ditzakezu. Beraz, lehenengo, saiatu pertsonak ezagutzen”. (Gizona, 24)

Emakume eta LGTBIQ+ pertsonen erronkak erbestean

Gizarte patriarkalak testuinguru migratzaileetan ere, emakume eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria erabiltzen du. Orain arte aipatutako etxebizitza lortzeko erronkak emakumeei ere eragiten diote. Emakumeak kalean bakarrik bizitzeko aukera hor dago, baita beraien seme-alaba txikiekin ere.

“Frantziara bere alabarekin bakarrik etorri nintzen emakume bat naiz eta bi hilabete itxaron behar izan nituen ostatu bat lortu arte. Denbora horretan nire anaiaren etxean egon nintzen, baina nire anaia hemen egongo ez balitz, kalean egin beharko genuke lo edo parkean, kanpin-denda batean. Eta berdin dio emakumea bazara”. (Emakumea, 24)

Emakumea eta migratzailea izateak, arrazakeriaz gain, genero-ordena ere kontuan hartu behar dela esan nahi du. Zapalkuntza-sistema handiagoa sortzen da. Generoa beti dago munduaren kolonialtasunak eta arraza-egituraketak baldintzatuta [Pikara Magazine, 2020] eta, horregatik, garrantzitsua da migrazio-testuinguruak ikuspegi interseksionaletik ulertzea.

“Pertsona errefuxiatuak interseksionalitatearen erdian gaude. Interseksionalitatearen gaiaren parte izateko ez duzu zertan beltza izan behar. Pertsona afganiarrak eta emakume afganiarrak, Ekialde Hurbiletik datozelako, interseksionalitatearen erdian daude. Hau arazo bat da. Ez dute baliabide ekonomikorik eta estigmatizazio handia jasaten dute. Eta esperientziak erakutsi didanez, emakume afganiar askok ez dute konfiantza nahikorik eta beldur dira, eta beren ametsak jarraitu eta egi bihurtzeko barne-konfiantza aurkitzea ezinezkoa egiten zaie. Senarraren menpe daudela uste dut. Gizonik gabe, emakume afganiarrak ez dira ezer. Hau arazo handi bat da, gure mugimendu feministak ezin duelako aurrera egin”. (Emakumea, 38)

Halaber, ikuspegi interseksionalaren barruan, garrantzitsua da genero-orientazioa edota genero-identitateak eragindako zapalkuntza kontutan hartzea, beti ere honi arraza-diskriminazioa gehitzen zaiola ahaztu gabe.

“Frantzian queer komunitatea oso itxia dela uste dut. Estereotipo asko eta gutxiagotasun-komplexua dituen komunitatea dela esango nuke. Komunitate hau Parisen edo Frantzian oso abegikorra ez dela uste dut. Frantziako herri oso eskuindar batera bidali zuten Afganistango mutil homosexual bat ezagutu nuen. Bertan ez zegoen apenas pertsona errefuxiatuak. Bakarrik eta isolatuta zegoen. Baina Parisera etorrita ere, zaila izango litzateke berarentzat. Frantzian homosexualitatea kapitalismoarekin lotuta dago, eta Frantziako gay komunitatea oso aberatsa da. Afganistandik datorren pertsona batek trauma asko ditu, eta ez ditu komunitatearen parte izateko hezkuntza-maila eta baliabide ekonomiko nahikorik. Eta diskriminazioa eta isolamendua handiak dira. Bi gauzen beldur da: batetik, afganiar heterosexualena, berarekin oso bortitzak izan daitezkeelako eta afganiar gay-entzat arriskutsuak direlako, eta bestetik, frantsesena, hauengandik jasan dezakeen diskriminazioagatik”. (Emakumea, 38)

Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi interseksionalaren barruan, genero-erolek ere zeregin garrantzitsua dute. Genero-rol tradizionalak oso nabarmenak dira erbestean dauden emakume afganiar batzuentzat, eta horrek Frantziako gizartean sartzea zaildu egiten du.

“Gaur egun emakumeen bi belaunaldi daude. Belaunaldi bat beraien familiarekin eta seme-alabekin egoten diren emakumeek osatzen dutena da. Bigarren belaunaldia, oso ausartak diren emakume gazteek osatzen dutena da. Eta belaunaldi gazte honekin oso harro nago. Emakume hauek lerroa zeharkatu dute. Heziketa jaso dute eta aurrera egiteko aukera dute. Aldi berean, beraien haurrekin eta lanik egin nahi ez duten ezkontutako emakumeak daude. Nahiago dute beraien umeekin etxean egon eta ez dute hizkuntza ikasi nahi. Frantzian

edo Mendebaldeko herrialdeetan, gizartearen inolako jarduerarik ez baduzu, mamua bezala zara. Isolatuta zaude eta jendea ez da zutaz arduratzen. Seme-alabak izatea ez da lanik ez egiteko ezta gizartearen parte ez izateko aitzakia bat. Oraindik frantsesez hitz egiten ez duten hainbat emakume afganiar ezagutzen ditut, ni Frantziara iritsi nintzen momentu berean etorri zirenak. [...] Emakume tradizionalak dira. Beraien rol tradizionalekin jarduten dute eta ez dute lanik egin nahi. Lan egitea gizonaren rola dela uste dute”. (Emakumea, 38)



“Emakume frantsesek gizonen afganiarrak onartzen dituzte. Baina gizonen frantsesek ez dituzte emakume afganiarrak onartzen. Orokorrean, erbestean dagoen gizon bat edo gizon errefuxiatu bat, motibatuta dago, eta Les Amarres bezalako tokietara joaten da [pertsona zaugarriak hartzen dituen Parisko espazio komunitario bat da]. Baina emakume afganiar bat ez da joaten espazio horietara. Bere estereotipoen arabera, ezin da gizon batengandik hurbil egon, indarkeria edo jazarpena bezalako arrazoiengatik, arriskutsua izan daitekeelako”. (Emakumea, 38)

Erbestean

“Hemen gaude. Eremita batean gaude. Askatasuna dagoen eremua batean gaude. Nire burua aurkitzeko denbora izan beharko nuke. Ez nago Afganistanen, Frantziara nago, Europa nago. Europako herrialde bakoitzak bere kultura dauka eta ikasi egin beharko genuke. Bidaiatzea aberasgarria da eta erbestea ikasteko okasio bat da, metamorfosiaren okasio bat. Metamorfosi hitza aukeratu dut, niretzat metamorfosi izan zelako. Gaur egun emakume hibridoa naiz; Iranen jaio nintzen eta hango kultura ezagutu nuen, baina nire jatorria Afganistan da eta hau deskubritzera bertara joan nintzen. Iluna izan zen, baina aldi berean, sekulakoa izan zen”. (Emakumea, 38)

“Erbestea transformaziorako aukera bat dela uste dut. Metamorfosi burutzeko eta herrialde bakoitzak bere kultura duela ikasteko. Ikasi egin behar dugu, baina zerbait pertsonala sortzeko askeak ere bagara, gure ideia pertsonala sortzeko askatasuna dugu”. (Emakumea, 38)

04

**ERRONKEI ERANTZU-
NAK: AKTIBISMOAK ETA
EMANTZIPAZIO-PROIEK-
TUAK**

ER
AN

TZ
UN
A
K

Migratio-testuinguruetan eta harrera-herrialdeetan dauden erronkei erantzuteko, asko dira asilo-eskatzaile, pertsona errefuxiatu eta migratzaileek sortzen dituzten aktibismoak eta proiektuak. Hurrengo lerroetan Frantzia eta Alemanian elkarrizketatutako pertsonen hasitako proiektu eta aktibismo pertsonalak laburbiltzen dira. Lehenik eta behin, emakumeek gauzatutako proiektu eta aktibismoak ezagutarazten dira, batez ere jatorrizko herrialdeetan emakumeen eskubideen alde borrokatzeko helburuarekin sortzen direnak. Jarraian, hainbat gai buruz, hala nola, mugak, klima-aldaketa, bizikidetzak, etab., gizonen zein emakumeen sortutako aktibismoak eta proiektuak partekatzen dira.

Afgactivistcollective: Afganistango emakumeen eskubideen aldeko aktibismoa

Atifa eta Zahra, gaur egun Berlinen bizi diren bi emakume afganiar dira. Talibanak Afganistanen boterera itzuli zirenetik, Afganistango emakumeen alde ekintza ezberdinak antolatzeko helburuarekin, beste emakume batzuekin batera hainbat bileratan hartu dute parte.

“2021eko abuztuaren 15a geroztik, Afganistango erorketaren ondoren, Afganistango testuinguruari buruz hitz egiteko beste emakume batzuekin elkartzen hasi ginen. Hainbat poltsa egin ditugu eta saldu egiten ditugu. Lortutako dirua, Afganistango emakumei zuzendutako eskola klandestinoei laguntza emateko bideratzen dugu. Orain kolektibo bat gara: [@afgactivistcollective](#)”.

(Atifa, Zahra)

“Atzo manifestazio bat antolatu genuen. Oso ondo atera zen, batez ere Afganistango emakumeak jasaten ari direna kontutan hartzen badugu. Ez dakit “bizirik dirauen pertsonaren sindromea”-ri buruz zerbait dakizuen ala ez. Bizirik dirauen pertsona

bezala, beste emakume batzuk bizitzen ari diren egoeraren errudun sentitzen zara. Eta kolektibo baten parte izateak, lagundu egiten digu. Egoerari buruz zerbait egiten ari garela sentitzen dugu. Oso zaila da, baina era berean lasaigarria ere bada”.

(Atifa, Zahra)

Itxaropenaren hegoak: Dashte Barchi-ko biktimen omenezko animazioa

“Grezian nengoenean *Wings of Hope* [Itxaropenaren hegoak] animazioa egin nuen, lagun askoren laguntzarekin. Une hartan, inoiz ahaztuko ez diren Dashte Barchi-ko martiriak oroitzeko egin nuen. Baina nire lurraldeko neskatok eta emakumeen egoera ez da aldatu, eta horregatik, berriz partekatu nahi dut. Beraien itxaropen, desira eta esfortzu guztiak hiltzen dituzte. Eta tiro egiten diete. Animazio honen bitartez, beraien ahotsak pertsona gehiagok entzuteko aukera izango dutela espero dut”.

(Tahere)

Tahere Alemanian bizi den emakume afganiar gazte bat da, eta “Itxaropenaren hegoak” animazioaren bidez, Kabulgo Dashte Barchi auzoan gertatutako sarraskia oroitu nahi izan du. Dashte Barchi Kabulgo komunitate xiitaren eta hazara etnia gutxiengoaren babeslekua da. 2021eko maiatzaren 8an, bonba batek 85 pertsona baino gehiago hil eta beste 147 zauritu zituen. Saueed Al-Shuhada eskolaren aurrean gertatu zen erasoak, eta biktima gehienak eskolara zihoazen 13-18 urteko neskak izan ziren.

Aktibismoa Alemanian: Afganistango emakume eta nesken ahotsa

Taherek Afganistango emakume eta nesken eskubideen alde borrokatzen du, hainbat ekintzetan parte hartuz: manifestazioak, aurkezpenak eta antzerkiak. Gainera, gaiari buruz hainbat testu ere argitaratu ditu. Oro har, bere aktibismoa hezkuntzan oinarritzen da.

“Afganistango emakumeen ahotsa izaten saiatzen naiz. Hori da nire borroka”. (Tahere)

“Hezkuntza oso garrantzitsua da. Ni emakume gazte hazara bat naiz eta Afganistanen jaio banintz, ezingo nuke ikasi, ezingo nuke ezer egin. Eta honek, hezkuntzaren alde borrokatzeko indartsuago egiten nau”. (Tahere)

“Hainbat aurkezpenetan hartu dut parte, Hamburgon, Düsseldorf-en, Dortmund-en... Eta Afganistanen eraildako neskatoen inguruan hitz egin dut. Neska hauek beraien eskubideen alde borrokatzen ari ziren eta oraindik ere jarraitzen dute. Oso ausartak dira. Baina mundua isilik dago. Isiltasun horrek haserretu egiten nau eta tristetu ere bai. Gaiari buruzko testuak ere idazten ditut. [...] Persieraz eta ingelesez idazten dut. Eta alemanez idazten ere saiatzen naiz. Alemanian jendeak ulertzea nahi baduzu, alemanez hitz egin behar duzu”. (Tahere)

“*Norberak sortutako legeak*” edo *Self-made laws*, testua idatzi dut, baita alemanez ere. Eta datorren astean Münster hirian antzerki batean parte hartuko dut eta testua alemanez irakurriko dut”. (Tahere)

“Liburu bat idatzen hasi naiz. Erronka asko gaintzeko borrokatzen ari den neskato afganiar bati buruzkoa da. Oso ausarta da”. (Tahere)

Afganistango 34 leihoak: Afganistango emakumei ahotsa emateko musika

“Afganistango 34 leihoak” edo 34 Afghan Windows proiektuaren helburua diskriminazioaren aurka borrokatu eta, gizarteratzea eta benetako esnatze prozesu bat sustatzea da. Proiektu honek, artearen bidez ahotsik ez duten pertsonen ahotsak altxatzea bilatzen du. “Afganistango 34 leihoak” Afganistango 34 probintzietan egiten diete erreferentzia eta musika eta artearen bidez Afganistango errealitate espezifikoak partekatzen ditu. Talibanak boterera itzuli eta milioika pertsonen eskubideak, eta batez ere emakumeen eskubideak suntsitu ondorengo Afganistango errealitate espezifikoak, hain zuzen ere.

Whirling edo “birak ematen dituenak” da ibilbide honetako bigarren abestia. Abesti honek Afganistango emakumeen eskubideei buruz hitz egiten du. Emakume afganiarrek urte askotan ez dute ahotsik izan eta abesti eta proiektu honekin ahotsik ez duten emakume horiei guztiei ahotsa eman nahi zaie.

Neda Afganistangoa da, Irlandik dator eta Alemanian bizi da. Beste emakume afganiar batzuekin batera *Whirling* proiektuan parte hartu du.

“Abeslaria Elena da eta beste emakume batzuekin batera abesti honetan parte hartu nahi al nuen galdetu zidan. Abestiak Afganistanen inguruan hitz egiten du eta Afganistanen alde zerbait egin dezakeela uste dut. Gure gorputzen bidez interpretatuko dugu. Niretzat antzerkian, gorputza da garrantzitsuena”. (Neda)

Artea eta pintura Afga- nistango emakumeen eskubide falta salatzen

Roya haurra zenean ez zen eskolara joan eta etxean arkatzen batekin marrazten pasatzen zuen denbora. Roya emakume afganiarra da eta Frantzia asilo-eskatzaila da. Frantziara iritsi baino lehen, Grezian egon zen denbora batez. Greziako Samos uhartea izan zen bere Europarako sarbidea eta bertan ezagutu zuen arte gune bat.

“Bertara joan nintzen eta besteak egiten ari zirena begiratu nuen. Marrazten hasi nintzenean, emakume frantses batek nigan sinisten zuela esan zidan. Talentu handia nuela eta etorkizuna nuela. Nire lehenengo pintura amaitu nuenean, gizon afrikar batek ere talentu handia nuela esan zidan”. (Roya)

Royarentzat artea erbestean dagoen emakume afganiar gisa dituen zailtasunetatik ihes egiteko modu bat da.

“Marrazten nagoenean, nire arazoak ahazten zaizkit. Beste toki batera bidaiatu eta une batez nire arazoak ahaztea ahalbidetzen dit. Zoriontsu naizen eta bakean aurkitzen naizen mundu berezi batera bidaiatzeko aukera ematen dit. Niretzat hitz egitea ez da erraza eta artea erabiltzen dut hitz egiteko eta nire barrua adierazteko”. (Roya)

Bestalde, Royak emakume afganiarrei ahotsa emateko eta Afganistango emakumeen eskubideen urraketak ikusarazteko ere erabiltzen ditu bere artea eta pintura.

“Nire artearen bitartez Afganistango emakumeen ahotsetik hitz egin dezaket. Horregatik margotzen ditut emakumeak, batez ere emakume afganiarrak. Oso egoera txarrean daude, eta ni ere emakume afganiarra naizenez, haiek sentitzeko gai naiz. Ez dute hitz egiteko eskubiderik eta nire ametsik handiena haiek laguntzea da. Nire artearen bidez haiengatik hitz egin dezaket”. (Roya)

Royak bere artea partekatzeko [sare sozialak](#) eta erakusketak erabiltzen ditu.

Ekitaldi afganiar eta feministak Parisen

Shakiba Afganistandik dator eta 14 urte daramatza Frantzian bizitzen. Bere aktibismoa feminista, LGTBIQ+ eta giza eskubideen aldekoa da. Besteak beste, ekitaldi feministak antolatzen ditu Parisen eta ekitaldi hauekin Irango, Afganistango eta Frantziako gizarteak hurbiltzea bilatzen du.

“Nire aktibismoa feminista eta LGTBIQ+ da. Etsai berdinak dituzte: patriarkatua eta erlijioa”. (Shakiba)

“Gizarte iraniarra, gizarte afganiarra eta gizarte frantsesa beraien artean hurbiltzen saiatzen naiz. Besteak beste, solstizioan ekitaldi bat antolatu nuen eta hainbat pertsona iraniar, afganiar eta frantses hurbildu ziren. Telebista eta prentsa frantsesa ere etorri ziren eta honako bideo [hau](#) egin zuten. Erreportai bat da, frantsesez”. (Shakiba)

“Ekitaldi hau Afganistango aktibista feministak eta LGTBIQ+ aktibistak aurkezteko eta komunitate honen inguruan hitz egiteko okasioa izan zen. Existitzen den komunitate bat da, komunitate heterosexualaren bestelakoa, baina bizitzeko eskubidea duena. Aktibista batzuei dagokienez, itxaropen handia dut. Haien lana oso garrantzitsua da. Gure historiak ez du gai honen inguruko aktibismo askorik. Afganistanen emakumeak gizonentzat direla uste dugu. Eta gainontzeko guztia, homosexualitatea edo transexualitatea, debekatuta daude”. (Shakiba)

Shakibak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen duten pertsona gehienak Afganistango eta Irango emakumeak dira. Afganistango gizon asko eta Frantziako pertsona helduak ere, batez ere emakumeak, hurbiltzen dira.

“Afganistango zeremonia feminista bat antolatu nahi dut. Afganistango emakumeok urte berriaren aurretik elkartu eta soja saltsa

errezeta bat prestatzeko ohitura dugu. Festa paganoa da, ez dago erlijioarekin lotuta. Festa feminista hau gustatzen zait, emakumeak izan zirelako zeremonia hau hasi zutenak. Soja saltsa goizerarte prestatzen dugu eta gero jendearekin partekatzen dugu. Suaren inguruan dantzatzen dugu, musika jotzen dugu... Ederra dela iruditzen zait. Hainbat aktibista feminista eta LGTBQ+-rekin hitz egin dut eta gauean guztiok elkarrekin era ireki batean hitz egin ahal izateko, bi ordutako mahainguru bat egitea proposatu diet. Jendeak galdetzeko aukera eta solasaldian parte hartzeko aukera izango du. Hainbat pertsona elkartu eta queer-ari eta feminismoari buruz hitz egiteko une egokia dela uste dut. Guztioi irekita egongo da. Afganistango emakume eta gizon asko egongo dira. Beharbada emakume frantsesak ere bertaratu dira. European normalizat hartzen diren, baina Afganistanen normalak ez diren gaiei buruz hitz egiteko aukera polita izango da”. (Shakiba)

Persiar Zirkulua: persiar eta frantziar kulturaren arteko hartu-emana bilatzen duen elkarte

Shakiba “Persiar Zirkulua” edo Le Cercle Persan elkartearen fundatzaileetako bat ere bada. Persiera eta frantsesa hitz egiten duten pertsonen arteko elkartrukean oinarritutako ondare kultural komuna sortu nahi duen elkarte da. Persiako eta Frantziako pertsonen arteko kulturarteko bizikidetzak bultzatu nahi duen ekimen bat da. Elkartearekin harremanetan jartzeko *sare sozialak* bidez egiteko aukera dago, eta webgunea eraikitzen ari dira.

“Ni Persian jaio nintzelako aukeratu nuen izen hau. Iranen jaio nintzen, baina nire jatorria afganiarra da. Eta pertsona afganiarrak ere persiarrak dira. Baina Iranen arrazakeria handia dago eta kultura persiar guztia Iranekin erlazionatzea nahi dute. Eta kultura hau partekatzen duten pertsona guztiei nortasun hori itzultzeko eguna iritsi dela uste dut”. (Shakiba)

?WHY|BORDERS: mugako politikak zalantzan jartzzen

?WHY|BORDERS Europako mugako politiken ondorioak zalantzan jartzen dituen ekimena da. Bere posizioa argia da: mugek bizitzak suntsitzen dituzte, mugek hil egiten dute eta mugek zatitu egiten dute. ?WHY|BORDERS batez ere Alemanian bizi diren pertsona errefuxiatu eta migratzaileek sortu dute, eta beren ekintzen bidez Europako mugetan gertatzen ari dena eta egoera hobetzeko egin dezakeguna azaltzen dute. Europarrei batzeko eta Europako mugen egoeraz arduratzeko dei egiten diete.

Ekimen honek gerra eta jazarpenetik ihes egin eta Europako kanpoko mugetan amaitu duten pertsonen lan artistikoak erakusten dituzten erakusketak antolatzen ditu. Erakusketa horien bidez, haien ahotsei espazio bat eskaintzen zaie, Europako muga-politikari buruz duten ikuspuntua adierazteko.

Neda Alemanian bizi da eta ?WHY|BORDERS ekimenean parte hartu du. Bere argazkiak kolektibo honek burutako erakusketa batzuen parte dira.

“Zerbait egin nahi dudanean, egin nahi dudana hori emakume batentzat zuzena den ala ez pentsatzen dut beti. Emakumeen eskubideen alde borrokatu nahi dut. Eta antzerkiak asko laguntzen dit, nire sentimenduak gorputzaren bidez adierazten laguntzen dit. [...] Koloreak hartu eta nire gorputza margotu nuen. Margoak hartu eta gaizki sentitzen naizen lekuetan nire gorputza margotzen dudanean, nire sentimenduak erakutsi ditzaket. Gero kamera hartu eta nahi nuen moduan mugitzen hasi nintzen, nire gorputzak nahi zuen moduan. Eta nere buruari argazkiak atera nizkion. Hori egin ondoren, hobeto sentitu nintzen. [...] Eta agian norbaiti lagun diezaiokela ere pentsatu nuen. Agian beste emakume batek edo beste pertsona batek nire argazkiak ikusten baditu, agian bere gorputzaren barruko dantza sentitu dezake”. (Neda)

Refugees For Future: migrazioa eta klima-aldaketa

Refugees for Future edo “Etorkizunerako pertsona errefuxiatuak” Alemanian aurkitzen diren pertsona errefuxiatuek sortutako ekimena da. Klima-aldaketaren aurka borrokatzen du eta klima-aldaketak migrazio-fluxuetan duen eraginaren inguruan kontzientzia kritikoa sortzea bilatzen du.

“Refugees for Future ekimenak klima-aldaketaren aurka borrokatzen du eta migrazioaren gaia ere jorratzen du, klima-aldaketak pertsonak migratu behar izatea eragiten duelako. Eta Europako mendebaldeko herrialdeen kolonialismoaren gaia ere jorratzen du. Horren aurka ere borrokatzen dugu”. (Mohsen)

“Pertsona errefuxiatuek sortutako ekimen bat da. Baina mundu guztiari irekita gaude, baita alemaniarrei ere. Ghana, Zimbabwe, Kenia, Afganistan... Herrialde askotan jarri dugu martxan Refugees for Future”. (Mohsen)

Refugees for Future ekimenaren beste helburu bat, klima-aldaketaren gaia eskuragarri izan ez duten pertsona guztiei, gai honen inguruan komunikatu eta sozializatzea da.

“Alemanian milioika artikulua daude alemanez klima-aldaketaren inguruan. Baina persiera, turkiera edo beste hizkuntza batzuetan ez dago ezer. Ez dugu gai honi buruz baliabiderik. Eta izatekotan, oso gutxi dira. Nik orain dela 2 urte arte ez nekien ezer klima-aldaketari buruz. Pentsa nolakoa izan daitekeen hezkuntzarik jaso ez duen gizartearen zatiarentzat. Ez dakigu gaiari buruz. Eta hori da Refugees for Future-n egiten duguna: gure jendeari heziketa ematen diogu. Lehenengo urratsa da. Artikuluak bilatzen ditugu, 8 hizkuntza ezberdinetara itzultzen ditugu eta *sare sozialetan* partekatzen ditugu. Online bidezko tailerrak ere antolatzen ditugu. Gaiari buruz arduratzen diren aktibistak, politikariak... bilatzen ditugu herrialde ezberdinetan eta tailerretan honi buruz hitz egiten dugu”. (Mohsen)

Yadu-Yoga: yoga elkartasun-zubi bezala

Yadu-Yoga Yadullah-k sortutako ekimen bat da. Yadullah Parisen errefuxiatuta aurkitzen den gizon afganiar bat da. Yadu-Yoga-ren bitartez, Yadullah-k interesa duen pertsona orori yogako klaseak eskaintzen dizkio. Bere helburua Pariseko herritarrak errealitate migratzaileetara hurbildu eta elkarrekin komunitatea sortzea da.

“Yadu-Yoga izena duen proiektu bat sortu dut. Yogako irakaslea naizenez, yogaren bidez pertsona errefuxiatuen eta bertako pertsonen artean zubi bat eraikitzea nahi duen proiektu bat da”. (Yadullah)

“Niretzat nor zaren axola ez duen espazio seguru bat aurkitzea garrantzitsua da. Hau da yogaren filosofietako bat, alderdi fisikoaz ez arduratzea, eta barrurantz joatea, zeure burua aurkitzea, ezagutzea eta kanpokoarekin, naturarekin, jendearrekin konektatzen saiatzea, edozein izanda ere, zein diren arduratu gabe. [...] Berdin zait nor zaren, baina elkarrekin esertzeko aukera bat sortu nahi dut, leku seguru batean, maitasuna, energia, kirola eta irribarreak partekatzeko. Hau da Yadu-Yogaren konexio polita. Hainbat leku ezberdinetan, horretan saiatzen ari naiz”. (Yadullah)

Yadu-Yogak arrazakeriaren aurka borrokatzea eta bereizten gaituzten mugak alde batera utzita, pertsona guztiak berdinak garela erakustea ere bilatzen du.

“Ni eta zu berdinak garela erakusten saiatzen naiz. Oso erraza da. Denok berdinak gara. Muga hauek ez dira beharrezkoak, dena gure buruan dago. Jendea elkartu nahiko nuke, hainbat modutara, honakoa esateko: Zergatik ezin dugu elkar besarkatu? Zergatik pentsatu behar dugu gaizki elkarrengandik?” (Yadullah)

“Ni, zu bezala, kirolaria naizela, irakaslea naizela, artista naizela, margolaria naizela, korrikalaria naizela esan nahi nuke. Eta errefuxiatua ere banaizela. Hona lapurtzera zatozela pentsatzen dute, baina ez! Hona elkartzera, batzera natorrela esango diet”. (Yadullah)

Yoga osasun-mentala zaintzeko tresna gisa

Sultan Afganistandik dator eta yoga eta meditazioak paniko atakeak gaintzen lagundu diote, bai Grezian, Europara sartu zen herrialdean, eta baita Bosnian ere, Frantziara iritsi arte bere bidean igaro zuen herrialdean.

“YouTube kanal bat ireki dut, jendeari Grezia eta Bosnian nengoenean jasan nituen paniko atakeak nola gaintu nituen erakusteko”.
(Sultan)

“Grezian nire paniko atakeak zirela eta, mediku batengana joateko aukera izan nuen, baina ezin izan zidan lagundu. Yoga aurkitu nuenean, eta yoga ikasi nuenean, orduan aurkitu nuen nire bidea”. (Sultan)

Grezian Yogako Irakasle Formakuntza batean parte hartzeko aukera izan zuen eta eskuratutako tresna eta esperientzia pertsonalaren bidez, bere [YouTube](#)-ko kanalean yoga klaseak partekatzen ditu bere ama hizkuntzan, farsi (persiera) hizkuntzan.

Esperientzia migratzaileak liburu baten bidez partekatzea

“Nire istorioa nire hizkuntzan, farsi hizkuntzan, partekatu nahi dut. Emozionalki ondo aurkitzen ez den migratzen duen eta migratu nahi duen jende asko dago. Liburu honen bidez, farsi hitz egiten duten pertsoneri, bizitzen ari diren momentu emozional zail bati nola aurre egin diezaioketen irakatsi nahi diet. Nola egon daitezkeen mentalki ondo eta aktibo”. (Sultan)

Sultan liburu bat idazten ari da. Bertan, Afganistandik Frantziaraino egindako bidean, Grezia eta Bosnia bezalako herrialdeetatik igarota, bidean bizitako esperientziak jasotzen ditu. Prozesu migratzailean zehar, aurre egin beharreko hainbat zailtasun agertzen dira, eta hauek pertsonen osasun mentalean eragin dezakete. Sultanek, berak bizitakoa bizitzen ari diren

pertsona migratzaileak emozionalki ondo egoteko tresnak partekatu nahi ditu.

Gainera, bere liburuak Europako herritarrak pertsona errefuxiatuak hobeto ulertzen lagundu dezake.

“Liburua beste hizkuntza batzuetara itzultzea ere gustatuko litzaidake, jende gehiagok irakurri eta pertsona errefuxiatuei ulertu ahal izateko. Eta horrela, jendeak pertsona errefuxiatuei sinetsi, beraiengan konfiantza izan, lagundu eta gizaki gisa tratatzeko aukera gehiago egon daitezkeela uste dut. Migratzen duten pertsona guztiak ez dira pertsona gaiztoak. Gehiengoak arazoak ditu eta bizitza hobeko bat nahi du. Aktiboak izan nahi dute eta jendearentzat zerbait egin nahi dute”.
(Sultan)

“Boxeo-klubean Frantziara iritsi arte egin nuen bidez hitz egin eta oinez etorri nintzela esaten dudanean, jendeak ez du sinesten. Hona pasaporte batekin iritsi nintzela uste dute. [...] Nire liburua irakurri nahi duten pertsonekin partekatzeko aukera izango banu, irakurleek beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak hobeto ulertzeko aukera izango lukete”.
(Sultan)

05

BIBLIOGRAFIA

BI

BL

IO

GR

AF

IA

ACNUR (2023a, apirilak 19). Iran. New arrivals from Afghanistan since November 2021 to end January 2023. <https://data.unhcr.org/en/documents/details/100185> Sarrera 2023ko apirilak 25.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

ACNUR (2023b). Afghanistan. <https://www.unhcr.org/afghanistan.html> Sarrera 2023ko apirilak 25.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

ACNUR (2023c) Iran. <https://data.unhcr.org/en/country/iran> Sarrera 2023ko apirilak 25.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

ACNUR (2023d). Refugee data finder. <https://www.unhcr.org/refugee-statistics/> Sarrera 2023ko maiatzak 4.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

ACNUR (2018, irailak 21). ¿Qué es el Convenio de Dublín? https://eacnur.org/blog/convenio-de-dublin-que-es-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/ Sarrera 2023ko maiatzak 9.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Aljazeera (2021a). Afghanistan. Visualizing the impact of 20 years of war. <https://interactive.aljazeera.com/aje/2021/afghanistan-visualising-impact-of-war/index.html> Sarrera 2023ko maiatzak 9.

| PRENTSA

Aljazeera (2021b, irailak 24). Mapping Afghanistan's untapped natural resources. Mohammed Hussein and Mohammed Haddad. <https://www.aljazeera.com/news/2021/9/24/mapping-afghanistans-untapped-natural-resources-interactive> Sarrera 2023ko apirilak 19.

| PRENTSA

Amnesty International (2023a). Afganistan 2022. <https://www.amnesty.org/es/location/asia-and-the-pacific/south-asia/afghanistan/report-afghanistan/> Sarrera 2023ko maiatzak 3.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Amnesty International (2023b, apirilak 4). Protect the Protest in Iran: the legacy of Mahsa Amini. <https://www.amnesty.ca/blog/protect-the-protest-in-iran/> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Amnesty International (2023c). Iran 2022. <https://www.amnesty.org/en/location/middle-east-and-north-africa/iran/report-iran/> Sarrera 2023ko maiatzak 3.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Amnesty International (2022a, irailak 15). Afghanistan: Taliban torture and execute Hazaras in targeted attack-new investigation. <https://www.amnesty.org/en/latest/news/2022/09/afghanistan-taliban-torture-and-execute-hazaras-in-targeted-attack-new-investigation/> Sarrera 2023ko apirilak 19.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Amnesty International (2022b, irailak 27). Iran: Urgent international action needed to ensure accountability for Mahsa Amini's death in custody. <https://www.amnesty.org/en/documents/mde13/6060/2022/en/> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Ara (2021, abuztuak 27). Muyaahidines, talibanes, Al-Qaeda y el Estado Islámico: la galaxia islamista de Afganistán. Ricard G. Samaranch. https://es.ara.cat/internacional/muyaahidines-talibanes-qaeda-islamico-galaxia-islamista-afganistan_1_4097052.html Sarrera 2023ko apirilak 14.

| PRENTSA

Asylum Information Database [AIDA] (2022a). Country Report: Germany. European Council on Refugees and Exiles. https://asylumineurope.org/wp-content/uploads/2023/04/AIDA-DE_2022update.pdf

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Asylum Information Database [AIDA] (2022b). Country Report: France. European Council on Refugees and Exiles. https://asylumineurope.org/wp-content/uploads/2023/05/AIDA-FR_2022-Update.pdf

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Atalayar (2022, urriak 22). Afganistán: los hazaras temen un nuevo genocidio a manos de los talibanes. Margarita Arredondas. <https://atalayar.com/content/afganistan-los-hazaras-temen-un-nuevo-genocidio-manos-de-los-talibanes> Sarrera 2023ko apirilak 19.

| PRENTSA

BAMF (2023). Immigrants and course attendees <https://www.bamf.de/EN/Themen/Integration/ZugewanderteTeilnehmende/zugewanderteteilnehmende-node.html> Sarrera 2023ko maiatzak 8.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Bargués, Pol (2021). Veinte años de intervención internacional en Afganistán: contradicciones y lecciones aprendidas. CIDOB (Barcelona Centre for International Affairs) https://www.cidob.org/es/publicaciones/serie_de_publicacion/notes_internacionales_cidob/262/veinte_anos_de_intervencion_internacional_en_afganistan_contradicciones_y_lecciones_aprendidas

| ARTIKULU AKADEMIKOAK

BBC (2021, abuztuak 27). Afganistán, Operación Ciclón: qué papel jugó Estados Unidos en el origen de los talibanes. Guillermo D. Olmo. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-58351126> Sarrera 2023ko apirilak 14.

| PRENTSA

BBC (2019, otsailak 8). Iranian women - before and after the Islamic Revolution. <https://www.bbc.com/news/world-middle-east-47032829> Sarrera 2023ko apirilak 8.

| PRENTSA

Eldiario.es (2021, abuztuak 30). Estados Unidos culmina su salida de Afganistán tras 20 años de ocupación. Iciar Gutiérrez. https://www.eldiario.es/internacional/cuenta-kabul-eeuu-ultima-salida-afganistan_1_8257244.html Sarrera 2023ko apirilak 14.

| PRENTSA

El orden mundial (2022, otsailak 11). 11 de febrero de 1979: el ayatolá Jomeini proclama la República Islámica de Irán. Ana Raya. <https://elordenmundial.com/hoy-en-la-historia/11-febrero/11-de-febrero-de-1979-jomeini-proclama-la-republica-islamica-de-iran/> Sarrera 2023ko apirilak 28.

| PRENTSA

El orden mundial (2021a, abuztuak 17). ¿Quiénes son los talibanes? Jaime Villamuera. <https://elordenmundial.com/quienes-son-talibanes/> Sarrera 2023ko apirilak 14.

| PRENTSA

El orden mundial (2021b, abuztuak 22). La cronología de la historia reciente de Afganistán. Álvaro Merino. <https://elordenmundial.com/mapas-y-graficos/cronologia-historia-conflicto-afganistan/> Sarrera 2023ko apirilak 14.

| PRENTSA

El País (2022, urriak 3). La ONU eleva a medio centenar los muertos en el atentado contra una escuela hazara en Kabul. <https://elpais.com/internacional/2022-10-03/la-onu-eleva-a-43-la-cifra-de-muertos-en-el-atentado-contra-una-escuela-hazara-en-kabul.html> Sarrera 2023ko apirilak 19.

| PRENTSA

Erei Elkartasunerako Elkarte [EREI elkarte] (2022). Greziako errealitate migratzaileak, lehenengo pertsona eta genero-ikuspegi batetik. www.ereielkarte.org Sarrera 2023ko apirilak 13.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Europako Batzordea (2022). Estadísticas sobre la emigración a Europa. https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/promoting-our-european-way-of-life/statistics-migration-europe_es Sarrera 2023ko maiatzak 3.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

European Union Agency for Asylum [EUAA] (2023). Latest asylum trends. <https://euaa.europa.eu/latest-asylum-trends-asylum> Sarrera 2023ko apirilak 25.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

European Union Agency for Asylum [EUAA] (2022). Iran-Situation of Afghan Refugees. https://euaa.europa.eu/sites/default/files/publications/2023-01/2023_01_COI_Report_Iran_Afghans_Refugees_EN.pdf

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Eurostat (2023). Annual asylum statistics. https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Asylum_statistics&oldid=558844#Main_countries_of_destination_.E2.80.93_Germany.2C_France.2C_Spain_and_Austria Sarrera 2023ko maiatzak 12.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

France24 (2022, urriak 10). La Revolución Islámica en Irán, más de 40 años vulnerando los derechos de las mujeres. Álvaro Cordero. <https://www.france24.com/es/programas/historia/20221020-la-revolución-islámica-en-irán-más-de-40-años-vulnerando-los-derechos-de-las-mujeres> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Gisti (2021). Applying for asylum in France. <http://www.gisti.org/spip.php?article5221&quoi=tout> Sarrera 2023ko maiatzak 12.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Hoodfar, Homa (2009). Contra viento y marea: el movimiento de mujeres en la República Islámica de Irán. https://www.awid.org/sites/default/files/atoms/files/cambiando_el_mundo_-_contra_viento_y_marea.pdf

| ARTIKULU AKADEMIKOAK

Human Rights Watch (2022a, irailak 6). Afghanistan: ISIS Group Targets Religious Minorities. <https://www.hrw.org/news/2022/09/06/afghanistan-isis-group-targets-religious-minorities> Sarrera 2023ko apirilak 19.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Human Rights Watch (2022b). Iran, events of 2022. <https://www.hrw.org/world-report/2023/country-chapters/iran> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Human Rights Watch (2015, urriak 28). Women's Rights in Iran. <https://www.hrw.org/news/2015/10/28/womens-rights-iran> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Infomigrants (2022, abenduak 7). 'We're worried about doing more harm', say French homeless hotline responder. Charlotte Oberti. <https://www.infomigrants.net/en/post/45214/were-worried-about-doing-more-harm-say-french-homeless-hotline-responders> Sarrera 2023ko maiatzak 12.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Khani, Khalil (2022, urtarrilak 27). La degradación medioambiental de Irán. Atalayar. <https://atalayar.com/blog/la-degradación-medioambiental-de-irán> Sarrera 2023ko maiatzak 4.

| PRENTSA

Leclerc, Gabija eta Shreeves, Rosamund (2023). Women's rights in Afghanistan. European Parliamentary Research Service [EPRS]. [https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2023/747084/EPRS_BRI\(2023\)747084_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2023/747084/EPRS_BRI(2023)747084_EN.pdf)

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Ligue des droits de l'Homme [LDH] (2019, otsailak 7). Campements, loterie, service payant: le système d'asile en répond plus. <https://www.ldh-france.org/campements-loterie-service-payant-le-systeme-dasile-ne-repond-plus/> Sarrera 2023ko maiatzak 12.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Naseh, Mitra; Potocky, Miriam; Stuart, Paul H. eta Pezeshk, Sara (2018). Repatriation of Afghan refugees from Iran: a shelter profile study. *Journal of International Humanitarian Action*, 3:13.

<https://doi.org/10.1186/s41018-018-0041-8>

| ARTIKULU AKADEMIKOAK

Pikara Magazine (2020, abenduak 16). Interseccionalidad y feminismo descolonial. Volviendo sobre el tema. Yuderkis Espinosa Miñoso. <https://www.pikaramagazine.com/2020/12/interseccionalidad-y-feminismo-descolonial-volviendo-sobre-el-tema/> Sarrera 2023ko maiatzak 19.

| PRENTSA

ProAsyl (2023, martxoak 6). Überfällig: Wohnungen statt Sammelunterkünfte für Flüchtlinge aus allen Ländern. <https://www.proasyl.de/news/ueberfaellig-wohnungen-statt-sammelunterkuenfte-fuer-fluechtlinge-aus-allen-laendern/> Sarrera 2023ko maiatzak 5.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

ProAsyl (2021, irailak 16). Streit und Gewalt hallen über den ganzen Hof. <https://www.proasyl.de/news/streit-und-gewalt-hallen-ueber-den-ganzen-hof/> Sarrera 2023ko maiatzak 5.

| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

Siavoshi, Sussan (2022). Afghans in Iran: the state and working of immigration policies. British Journal of Middle Eastern Studies. <https://doi.org/10.1080/13530194.2022.2113504>

| ARTIKULU AKADEMIKOAK

SOS Arrazakeria Gipuzkoa (2023). Elkar gurutzatutako bizitzak Irungo mugan: Entzutearen fruituak. Eva Aranguren Elosegui <https://sosracismogipuzkoa.org/wp-content/uploads/2023/02/Elkar-gurutzatutako-bizitzak-Irungo-Mugan.pdf>


| INSTITUZIOAK ETA GIZARTE-ERAKUNDEAK

The New York Times (2021, abuztuak 17). '¿Quiénes son los talibanes y qué buscan?' Eric Nagourney. <https://www.nytimes.com/es/2021/08/17/espanol/definicion-talibanes.html> Sarrera 2023ko ekainak 2.

| PRENTSA

The New York Times (2019, otsailak 12). La Revolución iraní, cuarenta años después: de la teocracia a la 'normalidad'. Thomas Erdbrink. <https://www.nytimes.com/es/2019/02/12/espanol/revolucion-iran-aniversario.html> Sarrera 2023ko maiatzak 2.

| PRENTSA



EREI Elkartasunerako Elkartea errealitate migratzaileak ikusarazteko helburuarekin Oñatin sortutako ekimen bat da.

Migrazio-prozesuetan aurkitzen diren pertsonekin elkarlanean eta hauen parte-hartze zuzenaren bitartez, mundu mailako desberdintasunak eta hauen ondorioak ezagutarazi eta giza eskubideak sustatzeko helburuarekin gizartea eraldatzeko heziketa jarduerak eramaten ditu aurrera **EREI** Elkarreak.

Mundu-mailako justizia soziala bilatzen duen gizarte bateratu baten alde, ikuspegi feminista, antiarrazista eta antikapitalista batetik lan egiteko konpromisoa hartzen du **EREIk**.

